

encuentrostopaketak

## Hitzaldiak

ekonomia, industria,  
energia eta I+G+b-ri  
buruzko jardunaldietako  
hizlarien esku-hartzeak

2008ko Irailaren 19-20an  
Sheraton Hotelea  
Bilbo



**Cristina Garmendia**  
Hasiara

**Luis Atienza**  
"Energia Politika"

**Juan Tomás Hernani**  
"I+G+b Euskadin"

**Eneko Landaburu**  
"Europa Ekonomiko eta Soziala"

**Iñaki López Gandásegui**  
"Industria Politika Euskadin"

**Claudio Aranzadi**  
"Energia politikaren  
erronka berriak"

**Joaquín Almunia**  
Amaiera

*solucioneskonponbideak*

PSE-EE  
PSOE



# CRISTINA GARMENDIA

*Hasierra*

---

Muy buenas tardes a todos. Arratsalde on danori.

Egia esan, asko pozten nau gaur hemen, Euskadiko Alderdi Sozialistak antolatutako Ekonomia, Energia, Industria eta I+G+b-ri buruzko topaketa hauetan egoteak. Eta bereziki pozten nau nire etxean nagoelako. Egia esan, Ministroak ez dira beti etxean egoten. Nire etxean nago, hasteko, neure lurraldean nagoelako, bigarrenik, gaurko egitaraua oso interesgarria delako eta Mahaian eta ikuslerian dagoen jendeak, neuk bezala, gizarte arduratsuago eta berritzaileago betarantz joateko lan egiteko ilusioa daukatelako. Eta horrez gain, neuk bezala, Euskadi hobetu dezakeen eta hobetu behar duen proiektu politiko baten alde dauden euskal sozialista kide askoz inguratuta nagoelako nago etxean. Proiektu horrek pertsoneri ilusioa eskaintzen die, baita gauzak bestela egin daitezkeela esan ere. Gizarteko esparru askotan, eta Industria, Energia eta Berrikuntzaren alorrean ere, politika irekiago eta parte-hartzaileago bat eraikitzeko itxaropena eskaintzen du. Eta proiektu horren buruak, Patxi Lopezek, aldaketa hori gauzatu dezake.

Duela bost hilabete baino pixka bat gehiago hartu nuen neure kargua eta une hartan, ziur nengoen Zientzia eta Berrikuntza Ministeriotik geure herrialdearen hazkunde ekonomikoaren eredia aldatzeko lan egin zitekeela, gizartean erakundeak, talentua eta ezagutza sortzen dutenak, gizarte irekiago eta progresistago baten iturria, eta aldi berean, ekonomia ekoizleago eta berritzaileago baten motorra izateko.

Denbora laburrean Espainiako gizarteari 2015. urterako Espainia Unibertsitateko Hezkuntza, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren alorrean munduko hamar herrialderik aurreratuenetariko bat izatea ahalbidetzeko gai ginela ulertarazteko erronkari ekin genion. Azken bost hilabete hauek hain sakonak izan dira, non batzuetan bost egun, eta beste batzuetan bost urte diruditen, eta denbora horretan, ekitaldi askotan parte hartu behar izan dut, baita hainbat pertsona ospetsu ezagutu, politika berrietariko batzuk martxan jartzean lider gisa aritu, etab. ere, eta horrela, aurrean dugun benetako erronka, Espainiak dauzkan baliabideak eta gaitasunak zein diren eta zailtasunak ere askoz hobeto ikusteko gai izan naiz, eta horiek ere orotarikoak direla ikusi dugu.

Egin ditudan nazioarteko bidaietan, geure erronkak beste herrialde askorenekin alderatzeko eta Espainiako I+G+b-ren inguruko politika kanpotik nola ikusten den ulertzeko aukera izan dut. Kazetariak sarritan galdetzen didate oraindik lehenengo eguneko ilusioa eta ikuspuntua izaten jarraitzen dudana. Ziurrenik, hilabete hauetako esperientzia biziagatik eta orain bizitzen ari garen zailtasun ekonomikoengatik galdetzen didate. Egia esan, bost hilabete hauen eta bizipen honen ondoren (eta bereziki, orain bizi dugun egoera ekonomikoki konplexua kontuan izanik), inoiz baino ziurrago nago geure gaitasun zientifikoei eta berritzeko ahalmenari ahalik eta probetxu gehien ateratzea, gizarte parte-hartzaileago eta ekonomia lehiakorrago baterantz aurrera egiteko aukera on bat dela.

Hilabete hauetan, geure gaitasun eta zailtasunen inguruko askoz ideia zehatzago bat osatu ahal izan dut eta neure ustez, askoz handiagoa da aurrera egiteko nahia eta konpromisoa. Gainera, geure egoera ekonomikoa

zein den jakinda diot. Lehenengo eta behin, aurrekontuko derrigorrezko murrizketen barruan, Espainiako Gobernuak, aurreko legealdian oraingoan baino askoz egoera hobean egin zuen bezala, Goi-mailako Hezkuntza, Ikerketa eta Garapenarekin daukan konpromisoa mantenduko duelako.

Estatuko 2009ko Aurrekontu Orokorren proiektuak, aste batzuk barru Gorteetara bidaliko denak, Unibertsitateen eta I+Garen alorrei lehentasuna emango dieten politikak martxan jarriko ditu eta azken urteotan lortu ditugun aurrerapenak mantendu eta sendotzea ahalbidetuko du.

Bigarrenik, geure gaitasunetan ilusioa eta uste ona izaten jarraitzen dut, krisi garaian gauden arren, krisiak abantaila bat eskaintzen digula uste dudalako: hau da, gizarteak orain errazago hartzen ditu Unibertsitatea, Enpresa edo Unibertsitateen eta I+G+b-aren alorreko Administrazioetatik bidal diezazkiokegun mezuak.

Gizartearengana iristen jakin behar dugu, noski. Horixe adierazi nien Errektoreei Unibertsitateen Kontseiluan. Nire ustez, paradoxa baten aurrean geundela esan nien, izan ere, inoiz baino gehiago, espainiar gizarteak (eta beharbada, lehenengoz) unibertsitatea eta ikerketaren alorreko komunitatearekin oinarizko printzipio bat dauka komunean: beste eredu ekonomiko baterantz joateko beharra, hain zuzen. Hezkuntza eta ikerketa geure kezken gunea diren etorkizun baterantz. Gainera, adostasuna parlamentuaren agintaritzaz guztietan onartua eta nabarmena da.

Baina, paradoxikoki, pertzepzio hori ez dator bat geure Goi-mailako Hezkuntza, Ikerketa eta Berrikuntza sistemaren ezagutzarekin, eta bereziki, Unibertsitatekoarekin. Nire ustez, geure gaitasunen eta geure beharren gaineko ezagutza falta horren ondorioz, ez dugu baloratzen, eta are okerrago, ezin dugula pentsatzen dugu, ez gaudela alor horretan jarduteko prest. Eta pentsamolde horren ondorioz, sektore publikotik ezin dugu herrialde gisa talentua sortzeko eta ikertzeko oinarri sendo bat izatearen aldeko apustu bat egin. Horren ondorioz, ez dugu ulertzen ahalegin hori enpresa berrikuntzaren sustapena, geure enpresek berrikuntzaren alde egiten duten gero eta apustu handiagoa indartzeko beharra osatzeko (ez ordezkatzeko) dela, eta hori bereziki nabarmena da Euskadiko enpresaburuen kasuan.

Zentzu horretan, interes handiarekin irakurri nuen Andreu Mas-Colellek irailaren 7an prentsan argitaratu zuen artikulua, *Informazio gehiago eta burokrazia gutxiago* izenburukoa, eta aukera badaukazue, irakurri ezazue, oso ona da eta. Ikerketaren alorreko Europako Kontseiluko idazkari nagusia izango den Pompeu Fabra Fundazioko irakasle honek unibertsitate eta I+Garen alorreko beharren azterketa zehatz bat egiten du. Talentua heztean inbertitu behar dela (horregatik dio "informazio gehiago") eta aldi berean, administrazioeko egiturak malgutu behar direla dio, izan ere, erakunde pribatuek berrikuntzak inbertitu ahal izatea zailtzen dute (horregatik dio "burokrazia gutxiago"). Bereziki atsegin dut egungo egoera deskribatzeko erabiltzen duen metafora. Ahalegin biek (enpresa sorkuntza sustatzeko pizgarriak sortzea eta sistema publikoa sendotzea) izan behar dutela geure hankak dio. Eta aipatzekoa da geure presidenteak, José Luis Rodríguez Zapaterok, azken legealdian hanka bi horiek muskulu handi batekin sendotu dituela, geure herrialdean aurrekaririk ez daukan aurrekontu igoera baten bitartez.

Sistema publikoaz, eta bereziki unibertsitateaz ahaztea, -irakasle katalanaren ustez- "hanka bat faltan izanik" korrika hastea bezalakoa izango litzateke. Horregatik, ekaitz ekonomikoko garai honetan, -haren hitzetan- "euria ari duenean, errepidea zailagoa" denean, sare ekonomikoa dinamizatzeko asmoarekin, epe laburrean pentsatuz, enpresa berrikuntzaren aldeko laguntzan zentratzeko arriskuan gaude. Baina hori egitea "hanka bat faltan izanik eurlan" korrika hastea da.

Artikuluak (eta bertan esandakoari eusten dioten argitalpenak) irakurri ondoren, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren proiektu politikoaren bost ardatzetara itzuli naiz eta Ma—Colellek azpimarratutako beharrak argi jasotzen dituztela eta apustu zuzena direla uste dut, bereziki une ekonomiko honetan. Bost ardatz horiek ondorengoak dira:

Hasteko, Zientzia eta Berrikuntzaren arauketa esparruak beharrezkoa den malgutasuna sartzeko gai izan behar du. Horretarako, dagoeneko Zientzia eta Teknologiarik buruzko Lege berriaren Aurreproiektu batean lanean ari gara. Lege horrek desburokratizazio horretan aurrera egingo du, eta aldi berean, ikerketaren esparruko langileentzako ibilbide profesional argia eta erakargarria diseinatuko du. Eta aipatzekoa da eskertzekoa dela hausnarketa horretan Claudio Aranzadiren laguntza izatea.

Bigarrenik, unibertsitate sistema sendoa, kalitatezkoa eta mundu mailan lehiakorra eraikitzea. Helburu horrekin jarri dugu martxan *Unibertsitatea 2015* estrategia. Estrategia hori dagoeneko Ministroen Kontseiluari, Autonomia Erkidegoei eta Errektoreei aurkeztu diet eta 23an Diputatuen Kongresuan aurkeztuko dut.

Hirugarrenik, ikerketa organismo publiko sendoak, Esparru Zientifiko-Tekniko jakin batzuetan Europako lider bilatzeko gai direnak, izatea. Eta bide horretan aurrera egiteko, Ministerioaren menpeko sei organismoak, hirurogei ikerketa Institutu biltzen dituztenak, berriz antolatzeke lan egiten hasi gara.

Laugarrenik, ezagutzaren esparruan gero eta enpresa sare sakonagoa eraikitzea, izan ere, eredu ekonomikoaren aldaketarako funtsezko elementua da. Horretarako, Teknologia eta Industria Garapenerako Zentroa (CEDETI) Ministeriora adskribatuta egotearen onurak dauzkagu. Horrek perspektiba bateratutik enpresentzako laguntza programa hobek diseinatzeko aukera ematen du, ezagutza sortzetik, enpresa berrikuntzaraino. Nahikoa da energia berriztagarriak bezalako sektore batean pentsatzea, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa martxan jartzearen ondorioz berrikuntza horrek duen garrantzia ulertzeko. Kasu honetan eta beste batzuetan, zientziaren alorrean hau munduko hamargarren herrialdea izatea eragin duen komunitate zientifiko bat daukagu, eta horrez gain, gero eta enpresa sare lehiakorrago bat ere dugu, ikerketa eta negozioa elkarrekin sendotzeko aukera anitzekin.

Azkenik, jarduera zientifiko dugu. Berrikuntza eta espiritu ekintzailerako joera gehiago daukan inguru sozial bat sortu behar dugu. Azken urteotan ahalegin horretan asko hobetu gara. Nabarmena da komunikabide orokorrekin zientziaren esparruari, eta prentsa ekonomikoak enpresen jarduera berritzaileari gero eta arreta gehiago eskaintzen diotela. Baina hemen ere ahalegin handiagoa eta bateratua egin behar dugu Ministerio berritik.

Horiexek dira geure lanaren bost ardatzak. Bost ardatz horiek Estatuko politika bat dira, baina garatuak izateko, beharrezkoa da Autonomia Erkidegoko eta Europako eremuak ere behar bezala barne hartzea.

Has gaitezen Europarekin. Ziur nago Kongresuko Zientzia eta Berrikuntza Batzordeko diputatu bat baino gehiago harrিতා geratuko zela 16an Zientzia eta Berrikuntza Batzordearen aurrean Estatuko Idazkariak gauzatutako agerraldiarekin. Bertan, hasteko, estatua eta ikerketaren esparru europarraren eraikuntzako perspektibak analizatzen ziren hortik abiatuz I+Garen alorreko politika espainiarra planteatzeko. Hala ere, horrela izan behar du ezinbestean. Ezinezkoa da adibidez, ikertzaileen mugikortasunari edo ikerketa egitura handiei buruzko politika moderno bat Europako perspektibarik gabe ulertzea.

Nahikoa da geure I+G+b-aren 2008-2011 Plan Nazionala edo beste herrialde batzuen planak aztertzea lehentasunetarik asko komunean dauzkagula ikusteko. Hortaz, horrelako ikerketa arazoak herrialdeok soilik dauzkagula ulertu behar al dugu? Ba ez, ez da hori bakarrik. Baina behar bada ahaleginak bikoizten ari garela eta herrialde bakoitza bere aldetik garatzen ari den gaitasunak -baliteke zatituegi egotea- ez ditugula behar bezala aprobetxatzen ere pentsa dezakegu. Are gehiago zientzia, gizartea eta ekonomiaren esparruetako erronken dimentsioak indarrak batuz eta ahaleginak integratuz erantzutea exijitzen dutenean. Prozesu honetan galdera askoren erantzunak aurkitu behar ditugu, esate baterako, zein den herrialdeen artean partekatutako azpiegitura zientifiko handiak kudeatzeko modurik eraginkorra. Edo nola ekidin daitekeen konplexutasun administratiboak herrialdeen arteko programazioa burokratizatzea, edo geure I+G+b Programa Nazionala irekitzeko ahaleginak oztopatzea eta beste herrialde batzuetako ikertzaileen parte-hartzea behar izatea.

Egia da, Europako azpiegituren mapa zabaldu izanak (beherago aipatuko dudan neutroien espalazio iturria barne) Europar Batasunari politika zientifikoaren alderdi batzuetan instalazioak kokatu edo finantzatzeko erabakiak hartzeko mekanismo eraginkorrak falta zaizkiola erakutsi du. Gauza bera gertatzen da ikertzaileen mugikortasunarekin, izan ere, legeen arteko adostasun faltak hainbat alorretan geldiarazten du, adibidez, gizarte segurantzaren edo pentsioen inguruko gaitetan. Elementu hauek guztiak (eta beste asko) dira merezi dugun ikerketa eremu europar horren oinarriak, moneta komuna daukagun bezala, goi-mailako hezkuntzaren alorreko eremu europar bat behar dugu.

Lagun maiteak: horixe da geure lan-arloa. Etorkizun horretarantz goaz. Azpiegiturak partekatzen dituen Europa baterantz, elkarlaneko ikerketa programekin, beste herrialde batzuetako parte-hartzea onartzen duten programa nazionalekin. Eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren politikak ere helburu zailak erdietsi nahi ditu zentzu horretan, eta horixe erakutsiko dugu 2010eko lehenengo seihilekoan Europar Batasunaren presidentetza espainiarrean. Hori dela eta, errealtate horretatik abiatuz, zaila da batzuetan ikerketa politikaren transferentzien inguruko eztabaiden sakontasuna ulertzea. Eta hori ulertzea zaila da transferentziaren alorrean aurrera egitea zatiketarantz joatea delako, eta Espainiako testuinguruan ez denez oso mesedegarria, European egiten ari garen bidearen kontrako norabidean doa.

Ez naiz azken hilabeteotan errepikatu ditudan legearen esparruko argumentuetan geratuko; I+G aldi berean Estatua eta Autonomia

Erkidegoen eskumen bat izatea, seguruenik, eztabaida ebazteko nahikoa argumentu da. Baina orain zientzia eta teknologiaren alorreko politikaren ikuspuntutik zenbait elementu praktiko eskaini nahi ditut.

Logika horretatik, zail samarra da transferentzia eta haren ondorio posibleen eztabaida ikerketa esparru europar bat eraikitzeke prozesuan kokatzea. Zaila da ikertzaileek, edo ikerketa zentroek, aipatutako erronkei (mugikortasun pertsonala, edo Estatuko ikerketa programa multzotik –eta beharbada, baita bere legeriatik ere- bereizirik dauden ikerketa programak dauzkan Autonomia Erkidego batetik masa kritikoak bilatzea) aurre egiteko modurik onena zein den pentsatzea. Eta horri Autonomia Erkidegoan egindako I+Garen kalitatearen gaineko erabakiaren eraginari buruzko zalantza gehitu behar zaio, izan ere, azpiegituren eta ikertzaileen masa kritikoaren menpe dago.

Urte hauetan Europa mailako ikerketa finantzatzeko agentzia handi bat eraikitzen ari dira; Ikerketarako Europako Kontseilua, hain zuzen. Europako gobernuok zera ulertu dugu: ikerketaren alorreko erronkak hain direla mundu mailakoak, eta geure lehiakideak (Estatu Batuak, Japonia eta Txina) hain direla ahaltsuak, non mundu mailan kalitatezko zientzia ekoizteko modurik onena oinarritzko ikerketarako funts komun bat eta hori kudeatzen duen agentzia europar bat sortzea den.

Bikaintasunaren inguruko irizpideekin soilik proiekturik onenak finantzatzen dituen agentzia bat. Eta hori ikertzailearen nazionalitatea kontuan hartu gabe egiten du, eskatzen dion gauza bakarra bere lana European gauzatzea da. Are gehiago, proiektua garatzeko baldintza hobeak eskaintzen dizkion beste erakunde europarren bat aurkituz gero, zientzialaria beste herrialde batera joaten bada, bere finantziarioa berarekin eraman dezake. Eta hori Europara mundu osoko talentua erakarri eta mantentzeko pizgarri bikaina da, baita herrialdeak eta ikerketa zentroak profesionalei baldintzarik onenak eskaintzeaz kezkatzeko ere.

Mundu mailako lehiaren arauen arabera mundu mailako kalitatezko zientzia ekoizteko agentzia europar bat da. Lehiakortasunaren oinarriko ezagutza hori ez da gaurkoa ezta biharkoa ere, etzikoak baizik. Ezagutza horrek etorkizuneko hazkuntza ekonomikoa eta gizartearen garapena neurri handi batean oinarrituko duten erantzunak, patenteak eta irtenbideak eskaintzen ditu.

Diodan bezala, erronka hain da handia, non geure Estatuko finantzaketa eta ebaluazio eskemek ere, geure I+G sistema espainiarrak osotasunean, zailtasunak dauzkaten masa kritikoa sortu eta modu arrakastatsuan lehiatzeko.

Ba orduan, testuinguru honetan, Euskadin ekoiztutako ikerketaren kalitatea eta bertako zientzia eta teknologia zentroyen mundu mailako lehiakortasuna hobetzen lagun dezaketen tresnarik onenak bilatuko ditugu. Horrez gain, argi dago ikertzaile, zentro eta enpresa euskaldunek eraikitzen ari garen gero eta inguru irekiagoetan lehiatzeko gaitasuna daukatela. Nahikoa da Ministerioko programetan lortzen dituzten emaitzak ikustea. Bertan, laguntza kopuru garrantzitsua lortzen dute beren meritu edo gaitasunen arabera, eta batzuetan, emaitzek oso programa erakargarri batzuen aurrekontu osoaren % 22raino ere eramaten dute, adibidez, CEDETIren CENIT, edo Europako I+G

esparruko programatik bereganatzen dituzten itzulerak, atal horretan Espainian liderrak dira.

Bukatzeko, Erresuma Batuan *Devolution* prozesuaren barruan, hau da, Eskoziari eskumenak transferitzeko prozesuan sortutako antzeko eztabaida bat azpimarratu nahiko nuke. Ez naiz kasuaren analisi politikoa egiten hasiko, eta noski, ez dut alderaketarik egingo. Bertan atera ziren ideia batzuk aipatu nahi ditut, besterik gabe. Zehazki, Royal Society britainiarrek, egoitza Londresen duenak, eta Edinburgheko Royal Societyk 1999an elkarrekin argitaratu zuten txostenean jasotako ondorioei buruz hitz egin nahi dut. Bertan, zientzia eta teknologiaren inguruko politika transferentzien zati izan zitekeen analizatzen zen.

Nire ustez, txostenaren ondorioek hausnartzea eragiten dute. Honako hau zioen: *"Eskoziarentzat funtsezkoa da zientzia eta teknologiaren alorreko sistema britainiarrean integratuta egotea; bestela, eskalako desekonomiak gogorrek izango lirateke eta Eskozia eta Erresuma Batuko gainontzeko eremuan arteko oztopoak desabantailatsuak izango lirateke alde bientzat"*. Ildo horretatik, interesgarria izango litzateke beharbada geure zientzialari eta akademiko bikainen iritzia izatea eta haiek horrelako politikak komenigarriak direla ala ez uste duten jakitea.

Lehen neutroien espalaziorako iturria berriz aipatuko nuela esan dut, eta horri buruz hitz eginez bukatu nahiko nuke, izan ere, adierazi ditudan argumentu guztiak laburbiltzen dituela uste dut.

Lehenengo eta behin, Euskadin eta Espainian I+Garen alorrean heldu gara era erakusten duten proiektu bat da. Irabazlea izateko elementu guztiak dauzkan kandidatura bat martxan jartzea lortu dugu, ezagutu berri dugun nazioarteko txosten teknikoan erakutsi den bezala. Eta alor horretan borrokan ari gara, eta duela urte gutxi batzuk ez genuen ezta amestuko ere lehia horretan egotea. Aldaketa hori heltzen ari izan garen urte batzuen ondorioz gertatu da, eta bilakaera horretaz harro egon gaitzeko, baina aipatzekoa da Espainiako Gobernuak 2004tik esparru horretan emandako bultzada ezinbestekoa izan dela. Proiektuaren aukera eta zailtasunek ikerketa espazio europar bat eraikitzeak esan nahi duena islatzen dute, hau da, zalantzarik gabe onurak dakartzak prozesu geldiezin bat da, baina bertan ez da erraza izaten herrialdeen interes bereziak artikulatzea. Prozesu horri ezin diogu uko egin europar gisa mundu mailako zientzian paper erabakigarria izaten jarraitu nahi badugu.

Azkenik, berriro ere, Alderdi Sozialistak etengabe errepikatzen du, Euskadiri dagokionez, batzen gaituzten proiektuekin bereizten gaituztenekin baino askoz urrunago iristen gara. Neutroi iturriak Gobernu Zentralak eta Eusko Jaurlaritzak ikerketaren alorrean interes komun ugari dauzkatela erakusten du. Izan ere, herritarrek interesak daukate, eta kasu honi dagokionez, geure zientzialari eta enpresaburuek ere, beren jatorria eta lantokia zein diren kontuan izan gabe. Eta haiek ahaleginak batzeko gai izateko eskatzen digute, eta horixe ari gara egiten neutroien espalazio iturriaren Partzuergoan, hori egitean geure indarrei ahalik eta etekin handiena ateratzen diegulako. Ez da harritzekoa instalazioa ikustera etorri den nazioarteko taldeak hoberen baloratutako alderdietariko bat Partzuergoaren arteko administrazio bien (Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza eta Industria Saila eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa) arteko sintonia eta lankidetzatza izatea.

Azkenik, Ministro gisa honen antzeko proiektuak sustatzeko asmo sendoa daukadala ziurtatu nahi dizuet. Euskadiren behar eta gaitasunetatik abiatutako proiektuak eta Ministeriotik osatuta, Zientzia eta Berrikuntzaren alorrean guztiok lehiakorrago bihurtzen gaituztenak. Beti saiatuko naiz sortzen diren aukera guztiak aztertzen.

Hasieran esan dudan bezala, ministro lanetan aritu naizen hilabete hauetan Euskadi, Espainia eta guztion gaitasunak hobeto ezagutzeko eta kanpotik ikusteko aukera izan dut. Eta zinez diot gaitasun horiek eta aurrera egiteko daukagun nahia aurrean dauzkagun zailtasunak baino askoz indartsuagoak direla. Batzuek ilusio, aldatzeko nahi, ideia... gehiegi dauzkadala esango dute, baina ziur nago proiektu batzuetarako beharrezkoak direla.

Eta Euskadiko Alderdi Sozialistaren proiektua, Patxi Lopezen proiektua, ideia, ilusio eta aldatzeko gogo handikoa dela uste dut. Eta Euskadirentzat beharrezkoak dira. Eskerrik asko.

---



## LUIS ATIENZA

### *“Energía Política”*

---

Egian esan, aurkezpen luzeegia prestatu dut eta, gainera, zuen erdiak baliteke datorren astelehenean okulistari hitzordua eskatu behar izatea. Beraz, ez iezaiezue kasu gehiegirik egin grafikoei, nik esaten dudanari arreta kentzeko baino ez baitute balio eta zuetako erdia begiak okertzen hasi baitaiteke.

Nire aurkezpena zabal samarra da, baina antolatzaileen eskura geratuko da hemen, eta bakoitzak behar duena erreparatu edota edozertarako erabili ahal izango du.

Eskema orokor honen bidez, nazioarteko proiektio energetikoen inguruko gogoeta batzuk egingo ditut; hain zuzen ere, eta nazioarteko ikuspuntutik, non gauden kokatzeko eta ondoko ezagutzei buruzko proiektio nagusiak non dauden jakiteko: baliabideak, baliabide erabilgarrien balioespena eta aurreikus daitekeen teknologiaren bilakaera –eskariari zein eskaintzari eragiten diona alegia–, eta, betiere, sistema energetikoei aparteko geldotasuna dutela kontuan hartuta.

Sistema energetikoetako aldaketak, beraz, bosturteka neurtzen dira gutxienez, edo, bestela, hamarkada bakoitzean. Ez dago energia-iraultzarik egun batetik bestera, eta halaxe dela frogatuko dugu azken hogeita bost urteetako eta datorren hogeita bost urteetarako proiektioetan energia-kontsumoaren egituraren garapena ikusten dugunean.

Ondoren, honako gaiei buruzko aipamen bat egingo dut: Europako energia-ingurunea, Espainiako energia-politika eta, bereziki, Espainiako sistema elektrikoa, izan ere, zerbaiti buruz asko badakit behintzat, horrexeri buruz baita.

Nazioarteari dagokionez, hauxe da aipatu beharreko lehen elementua: proiektio guztien arabera, energia-hazkuntza handia egongo da munduan datorren hogeita bost urteetan. 2005etik hona, % 50 hazi da gure kontsumoa, eta, batez ere, energia-kontsumoa izugarri hazi delako ELGAkoak ez diren herrialdeetan eta garapen bidean dauden herrialdeetan, eta energia kontsumoaren hazkuntza handia dela-eta, energia-kontsumoaren tasak % 3 ingurukoak izango direla aurreikusi da. Besteak beste, Txinan, Indian, Asiako hego-ekialdean eta Brasilen

Horixe da, beraz, aipatu beharreko lehen elementua. Eskasak edo eskasten ari diren baliabide batzuegatik hurbildu gara liskar batera. Eta liskar horrengatik ezin diogu errua eskari handiko herrialdeei bota, izan ere, ELGAko herrialdeetan duguna baino energia kontsumo maila askoz txikiagoa baitute.

Baina hornidura energetiko hau hornitzeko aurreikusi den moduaren arabera, grafikoko lehen lerroa, ikusten ez duzuenontzat, petrolioari dagokio, petrolioaren deribatuei. Ondoren, ikatza dago: nahiz eta, azken 25 urteetan zehar, gasak gairatzeko joera zuela iruditu, aurreikusitako ikatzaren kontsumoaren igoera dela-eta, batez ere Txinan –baliabide izugarriak baitituzte– eta Indian, ikatzak hazkuntza handia izaten jarraituko du, eta, beraz, baliteke 2030ean kuota berreskuratzea.

Energia berriztagarrien garapenean egiten ari den aparteko ahaleginak ez digu ia-ia hazten uzten –proiektioetan eskuragarri daude, nazioartean partekatuenak– munduko energia kontsumoko energia berriztagarri horien kuota. Hau da, munduko energia kontsumoaren % 6 izatetik % 8 baino zertxobait gehiago izatera ere ez dira apenas pasatzen. Horixe da errealitatea.

Hau da, energia berriztagarrien arloan izugarriko ahalegina egiten ari bagara ere –gero ikusiko dugu Espainiako kasua–, leku berean jarraitzen dugu. Gure energia-kontsumoa nola hazten ari den kontuan izanda, ahalegin horrek modu nabarmen batean postua ez galtzeko baino ez du balio izan... edota erregai fosilekiko dugun menpekotasuna asko ez hazteko.

Baina orain dugun eta areagotzen ari den estrategia-zaurkortasuna dela-eta, egoera hori larriagotzen ari da. Ideia bat izan dezazuen, LPEE eta Errusiak petrolio-erreserben % 85 osatzen dute une hauetan eta Errusia eta Ekialde Ertainak, berriz, gas-erreserben % 70 baino gehiago. Ezaugarri hauek dituzten herrialdeetako baliabideak dira: geopolitikoki ezegonkor daudenak, inbertsioak atzeratzen dituztenak, ustiapenean eta baliabide berrien garapenean inbertsioak errazteko moduko esparru juridiko egonkorrik sortzen ez dutenak eta, beraz, azken bosturtekoetan zehar sortzen joan denaren moduko erreserba-garapenaren euskarri bati laguntzen ari direnak.

Beraz, munduko energia-eskaeraren hazkuntza handi baten aurrean gaude, nahiz eta herrialde garatueta energia-eskaera ez den apenas igo; izan ere, hazkunde-tasak % 1 baino gutxiago igo baitira. Ziur gaude munduko energia-eskaeraren hazkuntza handi bat dagoela –eta, beraz, baliabideek eragindako liskarra–. Hornidura-segurtasunari dagokionez, tentsioak eragiten ditu, tentsioak baita ere prezioei dagokienez, eta, hirugarrenik, berotegi-efektuko gasen emisioak ingurunean eragiten dituen ondorioak ere hor daude.

2030. urterako, berotegi-efektuko gasak % 50 haziko direla aurreikusitako da, eta, batez ere, garapen bidean dauden herrialdeetako CO<sub>2</sub>-aren emisioa handitzen ari delako. Zentzu horretan, eta 2030. urterako aurreikuspenen arabera, ELGAko herrialdeetako CO<sub>2</sub>-aren emisioa % 14 haziko litzateke, eta garapen bidean dauden herrialdeetan, berriz, % 85.

Hori da Europako energiari buruz eztabaidatzeko kokatzen garen nazioarteko ingurunea. Europako energiari buruzko eztabaida, bistan denez, energia-politikari buruzko eztabaida guztien antzera mugitzen da, energia-politikaren hiru helburuen arteko oreka bilatzeko behararen arabera. Neurri batean, bata bestearen osagarri izan daitezke, baina beste neurri jakin batean, aldiz, kontraesankorrak dira.

Eta helburuak ondoko hauek dira: lehenik eta behin, energia-hornidura segurua izatea... Zergatik? Energia delako gizartea mugitzen duena –hornidura ezak gizarte-krisi handia eragingo luke–.

Bigarrena: Sistema energetiko lehiakorra edukitzea, batetik, enpresen arteko produktuen lehiakortasunerako energia-sarrerak erabiltzen dituztenen lehiakortasunari dagokionez eta, bestetik, azken kontsumitzaile diren familien errentari dagokionez, izan ere, kostu egokiekin hornidura segurua izateko eskubidea baitute.

Eta hirugarren helburua iraunkortasunarena da: eredu energetikoaren ingurugiro-eraginarena.

Horri buruzko erabakia energia-politika da, erabaki politikoa da letra larriz. Letra larriz diot politikoa, izan ere, energia-politikaren helburu ezberdinen arteko arbitrajea egiteko beste modurik ez baitago. Horniketa-segurtasunak ez du preziorik merkatuan. Hau da, zenbaterainoko menpekotasuna izan nahi dugu Argeliako gas-hornidurarekin? Edo, zenbaterainoko menpekotasuna izan nahi dugu inportazio elektrikoan, edo zenbat petrolio-erreserba izan nahi ditugu? 60 egun, 90 egun izan nahi ditugu? 30, 35, 60 eguneko gas-erreserbak izan nahi ditugu? Gasbideko gas-hornidura bakarrik nahi dugu? Edota hornidura toki ezberdinetatik ekartzeko malgutasuna izatea nahi dugu gas likidotuarekin ere? Hori erabaki politikoa da. Eta gizarte bakoitzak energia-zaurkortasunari buruzko sentsibilitate ezberdina du. Normalean, bakoitzaren esperientzia historikoak zerikusi handia izan ohi du. Finlandiaentzat oso garrantzitsua da Errusiarekiko menpekotasun energetikoa murriztea, eta, beraz, energia nuklear baten garapena errazago onartuko luke.

Eta gauza bera gertatzen da ingurugiro-eraginarekin. CO<sub>2</sub>-aren tonari prezio bat ezartzeko aukera ematen digun "emisio-merkatu" bat dugu, baina CO<sub>2</sub>-aren emisioen terminoetan helburuak non jartzen ditugunaren arabera da. Emisioen helburua 2005eko edo 1990eko emisioetan jarri beharrean, "1900, 1005, eta % 15 gutxiago –edo % 20 gutxiago–" jartzen badugu, emisio-merkatuari prezio ezberdin bat jartzen ari gara.

Eta horniduraren kostu, iraunkortasun eta segurtasunaren arteko arbitrajea erabaki politiko batekin burutu behar da. Hornidura-segurtasuna eskastasuna baino garestiagoa da. Energia garbia, oraindik, energia zikina baino garestiagoa da. Garestiagoa da epe motzera. Zergatik? Kostuaren zati bat etorkizunerantz ari delako luzatzen. Eta hori, ezinbestekoa den heinean, oso elementu garrantzitsua da. Hemen erabakitzeke eremu bat dago –energia-politikaren eremua–, hiritarren ordezkariak, ingurumen-helburuen balorazioaren arabera, erabaki bat har dezaten kostuaren, hornidura-segurtasunaren eta ingurumenaren artean.

Europar Batasuneko energia-politikari buruz: Europar Batasunak, oro har, aparteko menpekotasun energetikoarekin du arazoa, % 65ekoa baita bere menpekotasun energetiko globala. Gero, Espainian, % 80 dugula ikusiko dugu, % 80 baino zertxobait gehiagoko energia-menpekotasuna. Baina Europar Batasunak arazo handia du energia-menpekotasunarekin, petrolio izan hala gasa izan. Ondorioz, bere ingurumen-helburuen (berotegi-efektuekin amaitzea) aurka dauden CO<sub>2</sub>-aren proiektioek gora egin dute, eta, gainera, bere ekonomiaren lehiakortasunari kalte egiten dien geroz eta handiagoko prezioen lurrunkortasuna eta prezioen igotzea eman da.

Eta helburu batzuk ezarri dira, hain zuzen ere, oraingo inertzia dela-eta, 2020an kontsumituko genukeen energiaren % 20a murrizteko. Gure energiaren % 20a –Europako esparruan– energia berriztagarrietatik etor dadin saiatu beharko genuke –orain % 7 baino ez dugu, Espainian ere bai, energia berriztagarrietatik datorren energia % 7koa da–. Eta era berean, 2020ra begira, gure berotegi-efektuko gasak % 20 murriztu beharko genituzke 1990eko mailari dagokionez.

Horrek arautze-pakete bat esan nahi du –ez naiz horretan sartuko– eta, energia berriztagarriak sustatzeko helburuen barruan, badago azpi-helburu bat energia berriztagarrien sartzeari gero eta zailago den eremurako, garraio-esparrurako alegia. (Gero aipatuko dugu). Garraio-energiariaren % 10

ioerregaien bidez ekoiztea litzateke oraintxe bertan aztertzen ari diren azpihelburua. (Tira, gero aipatuko dugu).

Gure kasuan, energia berriztagarriak sartzearen kontuetan, errazagoa da helburuak esparru-elektikoan betetzea garraio-esparruan baino. Garraio-esparruaren sektorean da zailena petrolioaren deribatuei alternatibak aurkitzea. Elektrizitate-esparruan, ordea, -lehenik eta behin energia hidroelektikoarekin, orain, berriz, energia eolikoarekin, gero eta gehiago eskatzen den eguzki-energia termoelektikoarekin, etab.- ikusten dugun moduan, energia berriztagarrien portzentajeak oso altuak dira, % 30ekoak, edota % 30-40 bitartekoak. Elektrizitatearekin posible bada ere, berriz kargatzeko auto hibridoak edo auto elektikoak garatzen ez diren bitartean behintzat, oso zaila izango da garraio-esparruan ere gauza bera gertatzea; eta une hauetan, ia petrolioaren deribatuak bakarrik erabiltzen dira esparru horretan.

Espainiako energiaren kasuan, aipatu beharrekoa dela uste dut -eta hazkuntza ekonomiko handiko azken hamaika urte hauei begiratzen badiogu-erregai fosilekiko dugun menpekotasuna ia batere ez dela murriztu. Egia esan, ezertxo ere ez. Energia eolikoaren garapenarengatik iritsi dira % 7 izatera energia berriztagarrien tasak. % 4 inguruko tasak izatetik % 7ko tasak izatera iritsi gara.

2007. urtea nahiko urte lehorra izan da. Hori dela eta, energia hidraulikoaren ekoizpena urteko batez bestekoaren oso azpitik egon da. Zertxobait gehiago izan zitekeen, baina, erregai fosilei dagokienez, ikatzaren eta, neurri batean, petrolioaren garrantzi erlatiboaren beherakada baino ez da jazo, eta gas naturalarengatik ordezkatu da, eta energia berriztagarriak nuklearren garrantzi erlatiboaren beherakada apenas ari dira konpentsatzen. Baina beste ikuspuntutik... Neuk energia-sistema baten inertzia aipatzen nuen eta, nolabait, duela hamaika urte genuen erregai fosilekiko menpekotasun bera izaten jarraitzen dugu.

Euskal Herriko mapa horri begiratzen badiogu, baliteke, ikatzak duen pisu murriztagoa izatea ezberdintasunik handiena, izan ere, Pasaiaiko zentral termikoa baita, funtsean, hazkuntza izan duena, hau da, gas natural gehien ekoiztu duena erlatiboki hartuta; hemen zentral nuklearrik ez dagoelako, eta elektrizitatea sortzeko ziklo konbinatuko zentralen eta elektrizitatearen inportazioen garapena (geroago aipatuko dugun moduan Euskadiko kontsumo elektikoaren % 50 adierazten dute) Espainiako sistema elektrikotik datorrelako.

Azken kontsumo energetikoari dagokionez, baliteke, batetik, gas naturalaren hazkuntza izatea aipagarriena, izan ere, herrietako gasifikazio-prozesu orokorra dela-eta, industri eta etxeetako gasaren kontsumoak gora egin baitu; eta, bestetik, denbora luzez hazkuntzarako joera izango duen elektrizitatea, izan ere, garapenaren eta jakintzaren gizartearen beharretara gehien gerturatzen den bektore energetikoa baita.

Hau da, zerbitzu gizartea, informazioaren gizartea, telekomunikazioen gizartea, teknologia aurreratuenen gizartea eta industria-sektore tradizionalak elektrizitatea erabiltzera pasa dira ohiko energia-sargai gisa.

Etxeetan ere, beroa zein hotza sortzeko, bero-ponpa bidezko elektrizitatea ari da erabiltzen gasolioaren eta beste zenbait erregaien ordeztu. Hau da,

elektrizitatea indartzen ari da eta, zorionez, energia berriztagarriak sisteman sartzearen alde jokatzen duen beste elementuetariko bat da; izan ere, elektrizitatea baita bektorerik nagusiena energia berriztagarriak industria zein etxeko kontsumitzailearen eskura jartzeko. Elektrizitate kontsumoak edota elektrizitatea kontsumitzen duten teknologiak garatu ahala, gure energia-sisteman energia berriztagarri gehiago sartzeko aukerak areagotuko zaizkigu. Horrexegatik da hain garrantzitsua garraioaren sektorean garapen teknologikoaren bidez eredu energetiko garbiago bat izateko, bateriak eta elektrizitate kontsumoa garatzea berriz kargatzeko autoen bidez.

Energia menpekotasunari dagokionez, oso maila altuan gaude, % 80an alegia, eta gora besterik ez du egin. Energia baliabide gutxiko herrialdea gara, eta energia berriztagarriak besterik ez ditugu: gure herrialdean historia arrakastatsua dute potentzial eolikoari ateratako probetxuek; potentziala... eguzki-energiaren baliabideetatik lortzen dugun probetxua. Gure ikatzaren aprobetxamenduak bere horretan jarraitzen du, eta, termino orokorretan, baliabide garestia dela eta inguruneari kalteak eragiten dizkiola esan dezakezu –modu gozo batean esatearren–.

Zer gertatu da gure herrialdean energia-intentsitatearekin eta energia-kontsumoarekin azken urte hauetan? Gure garapen ekonomikoaren zikloan, gure energia-kontsumoak gorakada handia izan du. Eta hain handia izan denez, gure energia-intentsitateak ere gora egin du 2004. urtera arte, eta, urte horretatik aurrera, energia-intentsitatea gutxitzen hasi da.

Gobernua banintz, 2004an energia aurrezteko eta eraginkortasun handiagoa lortzeko ezarri ziren neurrien ondorioz gertatu dela esango nuke... Tira, Gobernuari utziko diogu esaten, zerbait... Baina azken lau urte hauetako energiaren prezio aldaketek ere izan dute zerikusia, horretan ez dago zalantzarik: petrolio eta gasaren prezioa lau aldiz igo da eta ikatzarena, berriz, bi aldiz baino gehiago. Energia aurrezteko eta eraginkortasun handiagoa lortzeko neurrien arrakastarekin ez ezik, prezioarekin ere lotuta dago kontsumoa, eta zenbaiten eszeptizismoa garaitzen ari da.

Zer gertatu da Espainiako sistema elektrikoan azken hamabost urte hauetan? Gure kontsumo elektrikoak % 4-5 arteko tasetara igotzen joan da urtez urte. Aipatu bezala, eragile estruktural asko egon dira; sektore asko energia elektrikoaren erabiltzera pasatu dira arrazoi teknologikoak, bero-ponparen garapena, etab. direla-eta. Eta Espainiako toki askotan, hegoaldean zein Levanten, berogailu gisa ere erabil daitezkeen aire hotzeko tresnak jarri dira. Hori horrela, Andaluzian, hasiera batean, eskari elektrikoak Udan igoko zela uste bazen ere, neguan ere izugarri igo da energia elektrikoak, eta batez ere Udarako erosi den baina neguan ere erabil daitezkeen tresnak eskaintzen duen erosotasuna aurkitu delako.

Tira, hazkuntza handiko tasak egon dira ondorioz, eta eskaerari erantzun nahian, ekoizpenaren estruktura aldatu da. Une historikoaren ondorioz, sistema elektriko oso dibertsifikatua dugu eta horixe da aipagarriena. Herrialde honetan urtegien garaia izan dugu, ikatz zentralen garaia, zentral nuklearren garaia... Eta, egun, gas eta eolikoaren ziklo konbinatuko zentralen garaian gaude. Baina ia monoteknologikoak izan diren garai historikoen ondorioz, oso estruktura dibertsifikatua jaso dugu. Eta berri positiboa da. Gure ekoizpenaren laurdena ikatzaren bidez lortzen da –ia 30era ari da gerturatzen–, % 20 energia nuklearraren bidez, eta, esan dezagun, ia beste % 25 energia berriztagarrien

bidez –garrantzitsuenak: ura eta eolikoa, kopuru berean–. Eta horixe da errealitatea. Gainontzekoak hondakinak dira, biomasa, etab., etab.

Euskal Herriaren kasuan, eskaeraren % 52a ekoizpen elektrikoa da. Beraz, Espainiako sistema elektrikoan oso integratuta dagoen sistema da eta elementu garrantzitsua izan da urteotan. Ziklo konbinatuko zentralak abian jarri zirenetik, auto-hornikuntza elektrikoaren maila hobetzeaz gain, zerbitzu elektrikoaren kalitatea sustatzeko lagungarri izan da; izan ere, hemen, berehalako eskaeren aparteko aldakortasuna eragiten baitu eskaera industrialak.

Aparteko aldakortasunak hornikuntzaren kalitate baxua eta tentsio batzuen eta maiztasunaren aldaketa handiak ekarriko lituzke sistema oso mailakatu eta sendoa izango ez bagenu. Sistema horrek, gainera, oraingo elektrizitatearen sorrerarekin eta ziklo konbinatuko zentralekin, eskaeraren hazkuntza handia mantentzea ahalbidetzen du, eta hornikuntzaren kalitate altuarekin eta Euskal Herrian elektrizitate sorreraren % 67raino igo diren ziklo konbinatu batzuekin. Ikatza gero eta gutxiago kontsumitzen da, hau da, % 12a baino ez; beste kontsumoetarako aldibereko ekoizpena eta energia berriztagarria erabiltzen ditugu eta % 11,7 osatzen dute batera. Kasu horretan, beraz, elektrizitatearen % 80 baino gehiago erregai fosiletatik jasotzen dugu, eskaintzaren eta eskariaren arteko berehalako orekaren mantentzetik.

Hornidura-bermeari dagokionean, energia-kontsumoaren neurritasuna izan da aipagarriena, eta, horrek, energia-intentsitatea edo energia-kontsumoa BPG unitateko txikitzen ari den heinean, orain nolabaiteko arrakasta izaten ari diren politikak garatzea eskatzen du. Eta, jakina, kostuak adierazten dituzten eta ezaugarri egokiak bidaltzen dituzten tarifa-politikekin; hartara, energia-kontsumoan teknologia eta jokabide eraginkorrenen sarrera suspertzeko eta sorkuntza berriko proiektuen abiaraztea eraginkorra izateko.

Energiari dagokionez, gas naturalarekiko menpekotasunaren areagotzea izan da gure punturik ahulena, eta, horretarako, "indartzeko elementu" batzuk digu. Europar birgasifikazio-planta gehien dituen herrialdea gara, eta hori aktibo oso garrantzitsua da hornidura-segurtasunari dagokionez, izan ere, aukera ematen baitugu nolabait urrun dauden jatorri ezberdineko gas likidotuaz hornitzeko.

Baina, ez da gure mesederako, ordea, Europa kanpoaldean egotea eta gainontzeko Europarekin partekatzen ez dugun Argeliako gas-hodi bidezko hornidura izatea. Oraingoan, behintzat, penintsulari besterik eskaintzen ez zaion hornidura da, eta, beraz, horrela ikusita, erdialdeko Afrikatik erdialdeko Europarainoko gasa hornitzeko izugarriko artekari baten parte izango bagina baino ahulagoa da. Zergatik? Zeren, ikuspuntu estrategikotik, pasagune den herrialde izateak irtenbiderik gabeko herrialde izateak baino, helmugako herrialde izateak baino postu sendoagoa betetzea eskatzen du.

Energia berriztagarriak behar diren moduan sartzeta da gure beste erronketako bat. Zergatik dira garrantzitsuak gure energia-sisteman? CO<sub>2</sub>-aren emisioak murrizteko aukera ematen digutelako, gure energia-segurtasuna hobetzen dutelako, energia-iturrien dibertsifikazio handiagorako aukera ematen digutelako, eta energia berriztagarrien garapenarekin lotutako garapen industrialerako aukera ematen digutelako; eta azken hori, energia eolikoaren esperientzia arrakastatsuak erakusten duen moduan, lana eta errenta sortzeko iturri bat da.

Energia eolikoa... Horixe da azken urteotan erregimen berezian sartu den potentziaren bilakaera... Aipagarri da, batez ere, energia eolikoa, azken urte hauetan hazkuntza izugarria izan baitu. Autonomia-erkidegoetako banaketa oso desberdina izan da; eta baliabide eskuragarritasunaren gain ez ezik, baliabide horren garapenean administrazio autonomiko ezberdinek erakutsitako dinamismo handiago edo txikiagoaren gain ere badago. Datozen urteetan, oraindik eta ibilbide garrantzitsuagoa izango du energia eolikoak: une hauetan gure energia elektrikoaren % 10 energia eolikotik badator, % 17-18 arteko tasetara iritsi gaitzke hemendik 2016. urtera bitartean.

Hori horrela, ez gabiltza bazterreko energia bati buruz hizketan, baizik eta energia nagusi bati buruz ari gara. Gure energia-saskiko oso elementu garrantzitsua da, eta halaxe da orain eta halaxe izango da datozen urteetan. Baina ez da zenbait konponbide aurkitzeko erronka handi bat planteatzen ari, eta konponbide batzuk garatzen jarraitu beharra dugu. Zergatik? Eskaintza eta eskariaren artean berehalako oreka mantendu beharra delako sistema elektrikoaren arazoa. Eta energia sortzeko zentralen bidez mantendu izan da oreka urte askotan. Zentral horiei ekoizpena igotzeko edo jaisteko argibideak eman ahal zitzaizkien zentral hidroelektrikoko konporta ireki edo itxiz, erregailua irekiz edo itxiz, turbinen potentzia handituz, etab. Eta orain "sortze mix" erantz ari gara aldatzen; bertako energiaren zati handi bat baldintza klimatologikoen baitan dago eta ez du esana betetzen. Eta hori aurtengo neguan ikusi dugu. 13.000 megawattioko energia eolikoa instalatuta egonda ere, une batzuetan 10.800 megawattiokoa izan da berehalako ekoizpena, eta beste batzuetan, berriz, ez da megawattiorik egon.

Eta sistemak gai izan behar du egoera horietan eskaintzaren eta eskariaren arteko berehalako oreka kudeatzeko. Erdialdeko Europan egongo bagina, eta gure ondoko herrialdeekin interkonektatuta, aldakortasun hori partekatzeko gaitasuna izango genuke bizilagunen sistema elektrikoekin. Dena den, Europa kanpoaldean gaude, Frantziarekin dugun lotura oso eskasa da eta, beraz, baita Europako sistema elektrikoarekin duguna ere. Lan-tresna berriak garatu ditugu aldakortasun hori Europako sistema elektrikoarekin partekatu ahal izateko; energia berriztagarrien sarrera seguruan munduko lehen herrialdea gara, baina horrek erronka batzuk dakartza berekin.

Energia berriztagarrien munduko lehen zentroa sortu dugu, baina premiazkoa da Europako sistema elektrikoarekiko loturak garatea (badago interkonexiorako proiektu bat eta datozen hiru asteetan, espero dut, sozietate mistoa eratzea gure homologo frantziarraren eta Sare Elektrikoaren artean interkonexioa sortzeko Kataluniatik, Gironatik hain zuzen), baina horrek ezin dezake gure interkonexiorako gaitasuna agortu, izan ere, gure eskariaren % 3koa baino ez baita Frantziarekin dugun interkonexiorako gaitasuna. Alemaniak % 12 baino gehiago du, Danimarkak % 50. Horregatik izan dezake Danimarkak eolikoaren oso menpe dagoen sistema elektriko bat, eolikoaren sartze handi batekin; hain zuzen ere, ondoko herrialde guztiekin ari baita bere ekarpen eolikoaren aldakortasuna partekatzen. Horregatik dago interkonexio berri bat marraztuta plangintzan, Nafarroan, identifikatu gabeko korridore zehatzik gabe, eta horixe izango litzateke interkonexioa indartzeko hurrengo urratsa, energia berriztagarri gehiago sartzeko elementurik funtsezkoena baita gure apustuan.

Baina badugu bestelako erronkarik ere sistema elektriko garbiago bat egiteko, hau da, energia berriztagarri gehiago erabiltzeko. Eskari kurba berdindu behar

dugu –gure eskari kurbak eskari oso txikia du goizeko ordutan eta eskari handia puntako ordutan–. Hots, kurba lauago bat izan beharko genuke.

Esaten nuen moduan, eskaintza kontrolatuz lortuko genuke eskaintzaren eta eskariaren arteko oreka, hau da, zentraletako ekoizpena igoz edo jaitsiz. Gutxiago kudeatu eta kontrolatu daitekeen eskaintza aldakortasun handiagoko sistema elektriko baterantz hurbiltzen goazen heinean, eskariaren aldakortasun handiagoa lortu behar da. Hau da, beharrezkoa da gure industriekin eta kontsumitzaileekin dugun eskariaren kudeaketa-sistemak ezartzea; hartara, eskaintzaren eta eskariaren arteko oreka bilatzeko orduan, aukera izango baitugu eskariaren emaitza izateko.

Elementu horren bidez, kontsumitzaile jakin batzuek elektrizitate-faktura merkeagoak jaso ditzakete sistema elektriko garbiago eta seguruago bat izaten eta une jakin batzuetan, prest egotekotan, beren eskari-kurba sistemaren beharretara egokitzen laguntzearen. Hau da, dagoeneko existitzen diren praktika batzuetako hedatzea da, industria batzuen etena bezala, baina sare-kudeaketa eta kontulari-kudeaketako sistema adimentsuenek askotariko erantzun gehiago ahalbidetu behar dio kontsumitzaile gehiagori, askoz erantzun hedagarriagoak, eta askoz ere azkarragoak, eta prezio egokiak ezarri behar zaizkie horretarako.

Eta gas-horniduraren sistema askoz ere malguagoa izatea da gure beste erronketako bat energia berriztagarri gehiago erabiltzeko. Zergatik? Bada, orain dugun energia eolikoa 15.500 megawattekoa bada eta zortzi urte barru 29.000koa izaten bada, aste ekaiztsu batek ekoizpen eoliko handia dakar berekin eta ziklo konbinatuko zentralen izugarriko beherakada eragingo luke eta, beraz, gasaren kontsumoa izugarri jaitsiko litzateke. Baina antizikloiaren astea izango balitz, gas-zentralek denak emanda funtzionatu behar lukete gasa etengabe ekoizteko. Hori horrela, gas-horniduraren sistema behar dugu, eta segurtasunagatik metatzeaz gain, malgutasunagatik ere metatu dezala, aldakortasun eolikoaren energia-koltxoi gisa jokatu behar baitu gasak.

Erronka hori oso garrantzitsua da gure kasuan, gas-erreserba gutxi baitu gure herrialdeak une hauetan. Eta horretarako dago Gaviota-ko biltegiatze-gaitasuna handitzeko proiektua, eta horregatik ari dira lurrazpiko biltokiak identifikatzeko lanak garatzen; horien bidez, gure gas-sistema askoz ere malguagoa izan dadin eta energia berriztagarriak sartzeko gaitasuna izan dezan sistemak berak.

Eta –hitzaldiarekin amaitzeko– garraioari eta ibilgailu elektrikoaren azpiegiturari dagokionez, energia berriztagarri gehiago dituen eta, beraz, energia elektrikoaren jatorrian askoz aldakortasun gehiago dituen sistemari buruz hitz egin behar dut berriz ere; izan ere, urtegietan ur asko badago, zentral elektrikoetatik etor daitekeelako eta, haize handia badabil, zentral eolikoetatik etor daitekeelako, eta ez badago ez bata ez bestea, zentral termikoetatik. Eta horrek sistema eta ibilgailu elektrikoaren sare sendoagoa eta malguagoa eskatzen du, aldakortasun handiko fluxuak kudeatu behar baititu bere jatorrian.

Horrek esan nahi du, gizarteak hainbeste arbuizatzen duen ahalegin handia egin beharra dagoela ibilgailu elektrikoaren azpiegitura berriak garatzeko orduan: goi-tentsioko linea berriak. Gure kasuan, guri eragiten digun kasuan, Euskadiren kasuan, oso sare mailatua badago ere, zenbait azpiegitura garatzeke daude. Eta, horietako bat, une hauetan eraikitzen ari den Kantauri



itsasoko ardatzaren interkonexioa da. Zergatik? Kantauriko erlaitzeko autobidea autobia bezain beste atzeratu delako. Hau da, azkena ari da eraikitzen. Obratan geunden... Zergatik? Aukera ematen duelako, batetik, ziklo konbinatuko zentraletako energia elektrikoa errazago bideratzeko eta, bestetik, sistemak hala behar izatekotan, energia gehiago jasotzeko.

Baina Euskadi eta Nafarroako sistema elektrikoaren arteko konexioa ere sendotu beharra dago Gasteiz-Muruarte linea elektrikoaren proiektuarekin. Muruarte-Castejón linea-zerbitzu berriarekin Nafarroa eta Mediterraneoko konexioa sendotu da, baina beharrezkoa da Gasteiz-Muruarte arteko eraztun hori ixtea, beharrezkoa da 400 kV-eko beste linea elektriko bat egitea Güeñes-Itxaso etabarren artean. Hau da, herrialdeak behar dituen horniduraren kalitateari eta beharrei segurtasunez erantzuteko moduko sare nahiko sendoa izateko proiektuak dira.

Eta, laburbilduz, gure energia baliabideak, gure energia baliabiderik nagusienak aurrezkoa eta energia-erginkortasuna direla esango nuke. Bigarren postuan, energia berriztagarrien garapena legoke. Eta hirugarren postuko azterketaren edo teknologiaren inguruan, oraindik ibilbide oso luzea dugu egiteke. Hau da, ez ditugu kontuan hartu behar baliabide fosilak, baizik eta teknologia izan behar dugu gogoan energiaren kontsumoan eraginkorragoak izateko eta gure baliabide endogenoak indarrean jartzeko. Eta nazio eta nazioartean elkarri lotutako sare sendo eta mailatu bat izan behar dugu, eta gas-sistema sendo eta malgua; eta Euskadi ordezkari oso garrantzitsua da Espainiako gas-sisteman.

Besterik ez, mila esker.

---

## JUAN TOMAS HERNANI

### *"I+G+b Euskadin"*

---

Arratsalde on guztioi. Niretzat poztasun handia da, zuentzat, eusko I+D+iri buruz berba egitea. Buenas tardes a todos. Ministro andreak eman berri duen hitzaldiaren ondoren hitz egitea tokatu zait, hain zuzen, eta nire esku-hartzeari Euskadiren egungo errealtatearen ikuspuntutik heldu nahiko nioke, izan ere, nire ustez, epe laburrean gauzatzeko gaitasun ikaragarriak eskaintzen baititu.

Ikerketa, Berrikuntza eta Industriaren hiruki generikotik abiatzen gara. Hiruki horrek, oro har, herrialde desberdinetako politika eta ekintzen ezagutza eta berrikuntzaren garapen osoa orientatzen du eta oso idiosinkrasia desberdinetako eragile batzuk biltzen dituzte, hala nola, Unibertsitatea, Ikerketa Zentroak eta ikerketa hori egiten duen industria bera.

Hirukiak eta eragileek izar judu antzeko bat osatzen dute eta lehenengoz daude pilatuta Ministerio berean, eta agintaritzaren beraren menpe, harreman horiek guztiak, sortu behar diren sinergien multzo osoa kudeatzeko gaitasuna daukate. Hori, noski, ez da huskeriak bat, hau da, beharrezkoak dira eredu hau aldarazten eta eboluzionatzea eragiten duten proiektu eta ekintza zehatzak. Hala ere, oso planteamendu kontzeptual sendo batetik abiatzen da, hots, geure demokraziaren historian lehenengoz hau guztia Ministerio beraren menpe egotea, haren eskumen guztiekin.

Funtsean bi atalburu kontatu nahiko nizkizueke. Lehenengoa, Euskadiko ikerketa eta berrikuntzaren alorreko errealtate zabalaren errepaso bat da; eta bigarrena, gaur egun berri, berritzaile eta ausart samarra den ikuspegi horrek nola bultzatu dezakeen modu garrantzitsuan une honetan daukagun egitura osoa.

Azalpenaren eskemak bost puntu dauzka. Azkar berrikusiko ditugu gure osasun berritzailearen adierazletxo batzuk. Gero, funtsezko lau elementuez mintzatuko gara, hau da: Industria, Hezkuntza Sistema, Ikerketa -I+G+b sistema- eta, azkenik, Gobernantza, elementu horien integratzaile gisa.

Euskadi herrialde industrial bat da. Industriaren parte-hartze kuota % 30ekoa da ia. Duela zenbait urte geneukana baino baxuagoa da, baina Europako batez bestekoa baino % 50 altuagoa da. Nahikoa da gainera gainetik begiratzea. Joan zen hilabetean, espalazio iturriko zientzialariak etorri zirenean, helikopteroan bueltatxo bat eman genuen haiekin eta airetik bikain ikusten da fabrika anitzeko lurralde bat garela. Aireportuaren inguruan ikusten da batez ere. Ikusi eta ukitzen den % 30a, horrek daukan alde positibo guztiarekin eta azken finean, dakarren esklabotzarekin ere.

Industriako errealtate horrek oso gaitasun ekonomiko sendoak eskaintzen dizkigu (baina ez ditugu eztabaidatuko, izan ere, dakizueenez, industria politikari buruzko beste bat egongo da). Europako produktibitateko altuenetariko bat daukagu 122,8 indizekoa, alegia. Per capita epe honetan izan dugun bilakaera sei urtean zortzigarren postutik hirugarrenera igaro da. Hau da, adierazle honek, berriro ere esaten digu Euskadin oso ongi bizi garela termino ekonomikoetan, eta gainera, gero eta hobeto bizi gara. Hau da, oso bilakaera gogorra izan dugula.

Eta zehazki, ikerketaren inguruko adierazleei dagokienez, une honetan BPGaren kopuru osoari dagokionez, i+Garen gastua % 1,6koa da. Ehuneko hori Europako batez bestekoa baino baxuagoa da. Une honetan Europako batez bestekoa 1,82koa da, baina Europan ia igotzen ez den adierazle bat da. Euskal Herrian, aldiz, pixkanaka mailak igotzen joan gara 1,60 horretara iritsi arte, eta aipatzekoa da Estatuko batez bestekoa baino askoz altuagoa dela, izan ere, hori 1,20koa da.

Nire ustez, adierazle horretako daturik garrantzitsuena gastuaren % 70 inguru industriakoa dela da. Hau da, gaur egun, BERD delako hitz lodi hori (hau da, Business Expenditure of Research and Development) 1,25ean dugu. Eta horixe bai, Europako herrialderik onenen pare dago. Beraz, hor potentziak interesgarri bat daukagu.

Beste adierazle multzo bat dago... izan ere, zuek zera esango didazue: "aurkezten ari garena gastua da". Eta dirua dagoenean gastatzea erraza da, eta kontua dirua aplikatzea eta emaitzak lortzea da, ezta? Ondorioz, beste adierazle multzo bat ere neurtu beharko litzateke (eta hor kokatuko zaituztet). Besterik gabe, horien guztien batuketa antzeko bat dagoela aipatuko dizuet. Hori European Innovation Scoreboard delakoa da, Europar Batasunak argitaratzen du eta Euskadi Europako eskualdeen artean 55. postuan kokatzen dugu, eta postu ertain-altua dela esan genezake. Ikerketaren alde egiten dugu apustua agresibo samarra da, baina lortu ditugun emaitzen batez besteko balorazioa ez da hain zoragarria. Hori da egia eta errealitate horretatik abiatzen gara. Ondorioz, bereziki azpimarratu behar dugu ikerketan egindako inbertsioak, orokorrean, eragina izan behar duela, gaur egungoa baino eragin handiagoa, hain zuzen.

Beno, abiapuntua -nire ustez arazo honi heltzeko modua baita- industria da. (Industria zentzu zabalean, merkatuko enpresa, eta ez soilik makinaria edo taladrinaren errealitatea).

Euskadik kluster batzuk dauzka eta horien politika duela urte asko hasi zen, oso egitura arin eta komenigarriarekin, ongi egituratutako sektore multzo batean eraginak lortu ahal izateko. Mahai horietan, hornitzaileak, bezeroak eta ikertzaileak biltzen dira eta elkarrekin agenda jakin batzuk, nazioartekotzea, teknologia, etab. garatzen dituzte. Orain une honetan modan dago. Europar Batasuna klusterrak sustatzeko politika propioak ateratzen joan da eta nire ustez, guk argazki positiboak egin ditugu benchmarking hauetan guztietan, Europa mailako konparazio horietan guztietan. Etorkizunaren oinarri izan behar duten funtsezko elementuetariko bat da hau.

Bigarrenik, Espainia osoko mailan ekoiztutako osoaren gaineko eraikuntza jakin batzuen oso eragin altua daukagu. Altzairu berezien % 90 daukagu, makina-tresnaren % 80, forjatuaren % 75, kapital ondasunen % 50 orokorrean. Hau da, industriaren BPGaren % 10 garen arren, oso sektore garrantzitsu eta estrategiko batzuetan ia guztia gara.

Ondorioz, hor beste aukera iturri handi bat daukagu gure helburu estrategikoak non dauden definitzerakoan. Horrek izen-abizenak dauzka. Hau da, elkar ezagutzen dugu eta hori abantaila bat da, harreman pertsonalak dauzkagu eta harreman, lankidetzeta, hornikuntza, bezero, teknologia "eremu burutsu" bat eraiki dezakegu eta lehiakortasunean plus bat gehitzen digute eta -neurri batean lurraldea "lotzen" du- beste eremu batzuetakoa baino askoz altuagoa da. Adibidez, Europan makina-tresnaren fabrikazioko hiru polo garrantzitsu eta lehiakorrenetariko bat izatea ere oso egoera interesgarrian kokatzen gaitu.

Oinarriko funtsezko beste abiapuntu bat zera da, nazioartekotzea hobetu eta sakondu beharreko esparru bat izaten jarraituko duen arren, Euskadin urtero 24.000 milioi euro fakturatzeko dituzten, I+Garen alorrean 400 milioi baino gehiago inbertitzen ari diren eta mundu osoan fabrikak dauzkaten hirurogeita hamar industria-taldeko oinarri bat dago dagoeneko. Hori aktibo erraldoi bat da zientzia, teknologia eta berrikuntzaren alorrean eman behar ditugun pausoetarako.

Ez naiz gehiago luzatuko horretan. Berrikuspen bat zen soilik eta horrekin oinarri solidotik abiatzen garela azaldu nahi nuen. Bertan, geure estrategiak geure gaitasunetan eraikita egon behar du, geure ahalmenetan, hoberen egiten dugunaren bitartez, eremu berriei heltzeko, eta gauza asko egiten ditugu bikain.

Bigarrenik, Hezkuntza sistema geure sistemaren gakoetariko bat da. Dakizuenez, sei Unibertsitateetan gaude (600.000 ikasle ari gara, gutxi gorabehera), gure campusetan ezagutzaren alor guztiak dauzkagu ia, Unibertsitate Publiko bat dago eta UHUN (Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala) eta gainontzeko Unibertsitate pribatuak dauzkagu. Unibertsitate batzuen tipologia oso interesgarria da, adibidez, Deusto, Mondragon edo Nafarroako Unibertsitatea eta eskaintzen dituzten profesionalak eta lankidetzak ere oso balio handikoak dira. Horrez gain, garatzen jarraitu beharreko espezializazio politikak ere garatu dira. Azaltzen ari diren lehenengo urrats batzuk dira, baina ideia orokorrak dira eta Europako toki anitzetan daude, eta nire ustez, gure betebeharra da unibertsitatearen munduan masa kritiko oso espezializatuen aldeko apustua garatzen jarraitzea.

Hirugarren elementua: I+G+b unitateak. Berrogei ikerketa enpresa baino gehiago dauzkagu, edo hobe esanda, beren ikerketa unitateak sortu dituzten enpresa-filialak -batzuetan ehunka langile daukate- eta horien egoera ere apartekoa da, Espainia edo Europako edozein lurralderekin alderatuta. Berezitasun horrek horrelako formulekin enpresa I+G garatzeko aukera horri arreita deitzea eragiten du, elementu bultzatzaile bat da, hazkuntza elementu bat.

Korporazio teknologiko handi bi dauzkagu, TecNALIA eta K4, industria eta oinarriko ikerketaren arteko tarteko posizio bat betetzen dute gutxi gorabehera 2.000-2.300 ikertzaileekin. Ikerketa kooperatiboko zentro multzo bat daukagu, European modan daude, eta Competence Centre delakoak dira, proiektu komunenguan erakunde desberdinetako ikerketa unitateetan biltzen dira. Kasu batzuetan egoera helduagoa da, beste batzuk, ordea, berriagoak dira, baina gehienetan islatzen da etorkizuneko joerak bateratzea eta elkarlana izan behar duela. Hiru Teknologia Parke dauzkagu eta horiei garatzen ari diren beste bi gehitu behar zaizkie. Zamudioko Teknologia Parkea Europako handienetarikoa bat da. Bertan, sektore jakin batzuetako enpresarik garrantzitsuenetarikoa batzuk dauzkagu eta bereziki harro egon behar dugu horretaz. Eta horrek guztiak azkenean berrikuntza indize horretako 55. tokira eramango gaitu.

Eta ez dut azken ekimen bat ahaztu nahi, izan ere, dakizuenez, ni hortik nator eta bertan egon nintzen lanean ekainera arte. Innobasque-i buruz ari naiz. Nik - eta hemendik dabilen zuzendari nagusiak zuzentzen ez banau- mugimendu bat dela esango nuke. Hau da, Euskal Herrian lortu duguna, daukagun nahaspila honez gain, industria helburu, lantalde eta abarren bitartez berrikuntzaren alorrean kontzientziatu eta mobilizatzen duen mugimendu bat da. Datorren urtea European Berrikuntza eta Sormenaren Urtea izango da eta nire ustez, Euskal

Herrian zer esan asko izango dugu alor horretan, aipatutako instrumentu horien behar bezala erabiliz.

Eta azkenik, aurretik ere existitzen zen eta existitzen den eta azken urteotan garatutako lana izan den oinarri hau guztia "eta orain zer?" galderari erantzuteko abiapuntua da. Benetan dugu guztia konponduta, ala kezkatuta egon behar dugu, egiteko eta erronka garrantzitsu batzuei aurre egin behar diegulako? Ba beno, nik atalburu honi "governantza" esango nioke, hau da faktore guztien integrazioari laguntzen saiatzen den atzeko aldea. Eta ministro andrearen hitzaldia osatu nahiko nuke Ministerioaren lau baloreei erreferentzia eginez. Berak "bost jarduera-ardatzak" aipatu ditu. Nire ustez, oinarritzko lau balore horizontal daude, honako hauek, hain zuzen: elkarlana, nazioartekotzea, ikasketa eta eraginkortasuna. Nire ustez, lau balore horiek gehiago ikusi beharko lirarteke gure I+G+b-aren jarduera eremuan.

Zer egin behar dugu Euskadin balore horiei dagokienez? Zalantzarik gabe, hitzaldi honetan ez dit denborarik emango ekintza guztiak zein diren azaltzeko, baina nire ustez, kooperazioa gaizki idazten dugun hitz bat da, 'o' gehiegirekin idazten baitugu. Nik nahiago nuke ortografia akatsa egin eta 'o' bakarrarekin idatzi, gaitasunak integratzeko ekintza zehatz eta laburra, nolabait, garatzen ari izan garen koordinazio politika bati azken ukitua emateko modu gisa. Nire ustez, 'o' bat kendu behar zaio gutxienez, eta datorren norabidean bultzada bat eman behar zaio.

Nazioartekotzea. Egia esan, eta orain ikusiko dugu, Euskadi egoera pribilegiatua dago, baina ez da nahikoa. Ikasketa beti izango da landu beharreko eremu bat. Nire ustez, kasu askotan, amerikarren dioten bezala, transferentzia "*the solution looking for the problema*" da. Ikerketa, batez ere, hasierako faseetan, puntu jakin batera arte egiten da eta gero bezero bat bilatzen saiatzen da. Hala ere, katalanengandik pixka bat ikasiko bagenu, lehenbizi bezeroa aurkituko genuke eta gero hasiko ginatke inbertitzen eta bezeroak eskatzen diguna garatzen. Ikasketaren esparruak, konplexua den arren, "alderantzizko transferentzia" delakoaren ikuspuntu osagarria ere izan behar du.

Eta azkenik, eraginkortasuna daukagu. Behartuta gaude, krisi ekonomikoko testuinguru honetan, aurrekontu murrizketen testuinguru honetan ezingo dugu orain arteko erritmoan hazten jarraitu. I+Garen esparruko aurrekontuko eskuragarritasuna laukoiztu egin dugu, baina hori bukatu egin da. Ez dakit noiz arte, baina argi dago bukatu dela. Ekimen pribatua eransteko gai izan behar dugu eta kudeaketarekin askoz eraginkorragoak izatea lortu behar dugu. Kudeaketarekin eta ekintza zehatzekin.

Horiexek dira Euskadiren egitekoak, Estatuko en antzekoak, alegia. Orain Estatu mailan gertatzen ari denak eskaintzen dizkigun aukera handiak laburbilduko ditut. Hori ezingo dugu galdu. Inola ere ez. Eta ekintzetariko batzuen buru izan beharko dugu, horretarako gaitasuna daukagu eta.

Eta azkenik, nazioarteko testuingurua daukagu. Bertan, mezua berbera da. Gehituz, proiektu handietara iristeko gaitasuna daukagu.

Ikerketa nukleo hori guztia etorkizunera bideratu behar dugu, oraindira. Gaur egun jende gutxi erabiltzen duten sektoreen alde apustu egin behar dugu, izan ere, zenbaki bat dira, BPGaren zati bat, baina garapen potentzial garrantzitsua daukate, adibidez, osasuna, bio, nano, energiak... hau da, oro har, Plan

Nazionalaren ardatzak, eta Euskal Lehiakortasun Planaren ardatzak ere dira, ezinbestean Hortaz, inbertitu behar dugun eremuak zehazteari dagokionez, bateratasun osoa daukagu. Eta noski, ez dugu garraioa ahaztu behar, oso sektore aeronautiko garrantzitsua daukagu, balio erantsi ikaragarriko burdinbide sektore bat dugu, izan ere, tren baten elementu guzti-guztiak fabrikatzen baititu eta abiadura handiaren alorrean ere lehiatzen gara; itsasoko sektorea ere krisitik garapenera igaro da, eta gure ontzioletako eduki teknologikoa egundokoa da: izatez, ia *Made in Euskadi* zigilua jarri diezaiekegu Euskadiko itsasontzi guztiei. Ekipo ondasunak, ingeniariak... Hau da, jaten ematen diguten sektore multzo bat daukagu eta horren alde apustu egiten jarraitu behar dugu.

Nire ustez, Euskadin lantzeke dugun alorra, eta eragile horiekin guztiekin lotuta – zentroak, enpresak eta unibertsitateak- zatiketa da... Jardueren benetako integrazioan aurrera egin behar dugu. Ezin dugu nanoteknologia zazpi gastu unitatetan ordaindu. Edo industriako lerrokaduran. Industriak etorkizuneko behar horien definizioari denbora eskaintzea eragin behar dugu. Hori “partekatutako bekatu” bat da, edo hobe esanda, elkarrekin heltzeko moduko aukera bat.

Transferentzia eta lehiakortasuna. Hori lehiakortasun terminoetan neurtu behar dugu. Zein lehiakorra naizen adierazlea gero eta gehiago sartu behar dugu eta mundua neurtzen duten barne adierazleak baztertu... Nagusiki ikerketa aplikatuaz ari naiz, funtsean industriatik hurbilen dagoen ikerketaz ari naiz.

Zer gertatzen da Estatuan? Zein da egoera? Ba ministro andreak gainetik azaldu digu. 2015 Unibertsitate Estrategia daukagu, eta horren barruan oso ekimen garrantzitsu batzuk jarriko dira martxan, adibidez, Nazioarteko Bikaintasuneko Campusak. Hori geometria aldakorraren arabera izango da. Unibertsitate guztiek ez dute Nazioarteko Bikaintasuneko Campus bat izango. Hau da, ikertzaile masa kritiko bat pilatzeko gaitasuna daukatenak soilik, industria erakartzeko eta baliabide hauek guztiak pilatzeko gaitasuna daukatenak soilik dira horren buru izango direnak, ez baitago guztientzako dirurik, eta bikaintasun irizpide bat jarraituko da. Ondorioz, hemen aukera bat dugu. Bolognako Prozesua dugu, eta horren buru izan behar dugu.

Une honetan ez dut gai honen inguruko eztabaida sakon batean sartu nahi, baina unibertsitate pribatuek etxeko lanak burutu dituzte kasik, unibertsitate publikoak, aldiz, lan handia du egiteke oraindik. Kokatu behar dugu, txikiak gara eta, baina nire ustez, hori lortzeko gai gara; lan horri ekin diezaiokegu, honen guztiaren motorra izateko gai diren pertsona erabakigarrien zerrenda daukagu eta.

Eta bigarren errenkada –eta ministro andreak hau ere aipatu du- oso garrantzitsua da. Espainiak 14.000 ikertzaile dauzka OPI publikoetan. Euskadin oso gutxi daukagu. Beraz, alor hau ere landu beharko da. Estatuarekin akordioak gauzatu behar ditugu gaitasun teknologiko erantsia daukagun zientziaren alorrak garatu ahal izateko. Ez naiz diruaz ari. Meloiaren arrakala horretan kosk egin behar digula diot bakarrik, eta OPI guztiek izango duten berrantolaketa horren zati eder bat lortu behar dugu. Eta zergatik ez? buruzagitzetariko batzuk helburu gisa izan. Aukera gisa ikusi behar dugu. Askok mugituko da eta hemen hobetzeko aukera garrantzitsuak egongo dira, ez dakit guztientzat izango diren, baina bai prest daudenentzat.

Eta European geure itzulerean tentsioa mantendu behar dugu esparru programan –Euskadi oso ongi ari da, eta orain datu txiki bat emango dizuet-, baina lehiakortasun hori lortzeko borrokatu ere. Ideia bat izan dezazuen, Espainia

Batasunaren % 8 da eta Euskadi Espainiaren 6,24. Hau da, esparru programaren aurrekontuko % 0,5 egokituko litzaigukeela. Diruaren itzuleraren eremuan hirukoitza eta pikuko ratioan gaude. Dirua ez da guztia. Zein proiektutan, zein eragin eragiten duen etab. aztertu behar da. Dirua ez bada iristen ez dago ezer, hau da, zenbatekoan, behintzat, oso bultzada gogorra eta garrantzitsua daukagula. Eta nire ustez, Estatuari lehiakortasun plus bat erants diezaiokegu neurri handiko proiektu jakin batzuk aktibatzeke, horietan liderrak izateko eta irabazteko. Martxan jartzeko gaitasuna, asmoa eta buruzagitzarekin lor dezakegu, egiten ari garen bezala.

Horretaz ari nintzen esparru programaz mintzatu naizenean. Ez ditut xehetasun gehiegi emango, baina azken urteotan Euskadin eremu hau landu da eta gaur emaitzak ikusten ari dira. Gaur egun, tarta horren 6,24 izan beharrean, % 20 gara, gutxi gorabehera. Ondorioz, hain lehiakorra den testuinguru horretan hain zaila bada proiektu bakoitza eta euro bakoitza itzultzea, lan egin dugu. Benetan diot, nire ustez, gaitasun handia dugu.

Atal hau ministro andreak dagoeneko aipatu duen adibide batekin bukatu nahi dut, hau da Espalaziorako Europako Iturria. Hemen duzue kokapena. Duela bost urte hasitako proiektu bat da. Nire ustez, haren sortzaileei hura kontzeptualizatzeko garatu zuten lana, ausardia eta ahalegina aintzatetsi behar zaie. Nik azken urteotan ikuspuntu desberdinetatik bizi izan dut eta une honetan gidaritzatik hurbil bizitzea tokatzen zaidanez, gobernu biren elkarlanaren adibide ezin hobea dela esan diezazueket. Igandean Rigara joango gara suediarren kontra borrokatu behar dugu eta. Eta ondo baino hobeto dakigu hau galdu ala irabazten den kontu bat dela eta ezin garela mezu elektronikoekin ibili etab. Nire ustez, lortu egin dugu, benetan funtzionatzen duen lantalde bat dugu, guztiz kohesinatuta eta kandidatura lortzeko gogor ari da borrokatzen.

Beharbada, European Espalation Source ekimenak Euskadiren % 80 hartzen duela erakusten duen grafiko bat erakutsi beharko nizueke, izan ere, proiektu erraldoia da. Eta horrez gain, Espainian egongo den nazioarteko lehenengo azpiegitura europarra da. Egia da ere, oraindik Europan ez daudela eredu honekin garatutako hainbeste azpiegitura. Ondorioz, punta-puntan gaude. Horrek eragin ekonomiko, zientifiko eta teknologiko ikaragarria dauka eta geure industria eta gizarte sare osorako pizgarri bat izango da. Ziur nago. Herrialde honek lortu dituen beste lorpen historiko handi batzuk bezala, adibidez, Iberdueroren jauzi handiak, eta 50eko hamarkadako ingeniariak, liburuetan jauzi hidraulikoak nola egiten diren aurkitu ez zuten arren, gauzatzea lortu zuten. Edo bankua. XX. mendea martxan jartzean, dakizuenek, Espainiako bankuaren zati handi bat Bilbon jaio zen. Altos Hornos. Edo Gamesa, ezta? Mundu mailan punta-puntako beste adibide handietariko bat da hemen, eta hemen haren sortzaileetariko bat dugu geure artean, Iñaki, hain zuzen. Erreferentzia garrantzitsuak dauzkagu, eta orain dugun aukera Guggenheimekin alderatzea baino nahiago nuke gogora ekarri ditudan bi ekimen horiekin alderatu. Aurrerapenaren pizgarri hori sortu duten ekimen handiekin.

Inbertsioa? 1.300 milioi dira. Baina 1.300 milioi horiek industriari eta lankide guztiei errotazio bat eragingo digute. Pentsa... Hortaz, ez da zabortegira doan gastu bat. Ordua-pertsona gisa ikusten den 1.300 milioiko lana eta balioa erantsia sortzen duen inbertsio bat da, azkenean iturrira erantzen den ingeniari-tza, zientzia eta teknologiako balio erantsi guzti hori.

Gaur egun hurbil samar dauden enpresentzako oso garrantzitsua izango den berrikuntza eta goi-teknologia merkatu bat sortuko dugu, hau da,

magnetismoaren mundukoentzat, ingeniari-tza handientzat, elektronikan aritzen direnentzat, etab. Aurrean enpresa ugari dauzkagu baita urte anitz ere eragin hori itzul dadin prestatzeko, guztioi eragin diezagun.

Hori nola saldu beharko genioke Solbesi edo lehendakariordeari? Ba zera esaten diegu, urtero 30 milioi jarri behar dituztela eta hori dela dagokigun kuota. 600 jarri behar dituztela esaten badiegu ikaratu egingo dira eta. Urtero 30 milioi jarri behar dira. Eta horrez gain, zera esaten diegu –eta hau egia borobila da-, jartzen duten euro bakoitzeko inbertsioan bider lau lortuko dutela. Beste euroa beste gobernuak jartzen baitu eta beste hi euroek Europatik etorri behar dute. Esadazue negozio hoberik dagoen.

Eta, gainera, nik gaur dagoeneko funtzionatzen duen merkatu bati erantzuten diola esango nuke. Hau ez da zientzia-fikziozko film bat: gaur egun zientifiko ugari neutroirik gabe geratuko dira eta nonbaitera jo beharko dute beren ikerketekin jarraitzeko. Frantzia, Alemanian... Hortaz, existitzen den merkatu bati erantzungo diogu. Kontua ez da zerbaiten aldeko apustua egiten ari garela eta gero zer geratuko den ikusteke dagoela. Arriskua dakarren proiektu bat da, noski, eta lehen esan dudan bezala, eraikuntza ikerketa da. Ez dugu makinarik erosiko. Alde bakoitza ikertuko dugu. Baina existitzen diren eskaera batzuei erantzungo diegu.

Seihun lanpostu eta zeharkako 4.000 lanpostutik gora... nazioartekotze efektua: eskola frantses, ingeles, amerikarrak Bilbora lanera etorri beharko luketen 1.000 familiarentzako... Erronka honi aurre egiteko prest egon behar dugu, lan asko baitago egiteke. Baina kontuan hartzekoa da horretarako hamar urte dauzkagula. Nolanahi ere, nolabait gizarte osoarekin (eta noski, unibertsitatearekin) batzen gaituen lorpen garrantzitsu bat erdiesteko erronka dugu aurrean. Unibertsitatearentzako pizgarri handia izango da eta. Baina ez soilik Fernandoren Sailarentzako edo Ingeniaritza Mekanikoko Sailarentzako. Unibertsitate osoarentzako pizgarri bat izango da daukan garrantziagatik.

Arrakasta izan dezakegu. Eta azkenera arte borrokatuko gara proiektu hori Bilbora etor dadin. Eta azkenean ez badator, guztioi bazkari bat ordainduko dizuegu, lehen koktelean esan dugu bezala, eta bestela, zuek ordainduko didazue neuri. Eta nire ustez, gobernuen arteko elkarlan eredu honek geure bazkide europarrak liluratuko ditu. Horren aldeko apustua egin behar da soilik. Ukitu pertsonal batekin, zera diotsuet, hegazkin bat hartzen dugunean eta Rigara goazenean, kandidaturaren alde borrokatzeko ilusio eta emozio handiarekin goazela. Laster albiste onekin itzultzea espero dut. Muchas gracias.

Eskerrik asko.

---



## ENEKO LANDABURU

### *“Ekonomi eta gizarte Europa”*

---

Industria Euskadin geure ekonomiaren % 30 da. Espainiako batez bestekoa, Europaren ekialdeko herrialdeetarantz hedatzeak esan nahi duena da 50 urtetan ia 500 milioi herritar dauzkan eremu bat finkatzea lortu dugula. Herritar horien balore batzuk antzekoak dira, segurtasun finkatuarekin bizi dira eremu ireki batean, eta historian inoiz izan ez duten ongizate bat izatera eramán dituen politikak garatzeko gaitasuna izan dute.

Hau da, integrazio prozesuan 50 urte igarotzean oso emaitza arrakastatsua lortu dugu eta 500 milioi herritarreko espazio hori gaur egungo eragile bat da nazioartean. Hori, arestian esan bezala, barne politikak finkatuz eta barneko mugarik gabeko merkatu bat finkatuz lortzen da, bertan, pertsonak askatasunez mugitzeko aukera daukate, baita ondasunek, kapitalek eta zerbitzuek ere, baina horrez gain, kontuan hartzekoa da dimentsio politikoa ere, izan ere, 2004tik aurrera, denbora luzez komunismoaren eta sobietar eraginaren menpe bizi izandako 12 herrialde familian sartu ziren. Ez dut uste Europa sortu zutenek mende honen hasieran batuta eta geografia gurekin bateratu ahal izatea ahalbidetuz biziko ginela amesten zutenik ere. Hori duela 50 urte hasi zen abentura honen emaitza da.

Ituna 50eko hamarkadan hasi zen. Estatu kideek familia bat sortu eta integrazio prozesu handiago baterantz joan nahi zuten, eta funtsezko balore batzuetan oinarritu zen, besteak beste, demokrazian eta giza eskubideetan, noski. Baina baita lehiaketa librean, enpresa librean eta merkatu ekonomian ere. Hau da, inor ezin zen taldera sartu oinarri horiek errespetatu ezean. Eta horrek (kanpoan) nortasun ikur garrantzitsua ematen digu 500 milioi herritarreko talde gisa, munduan berezko nortasuna izanik, eta balore desberdinak defendatuz, hala nola, demokrazia eta giza eskubideak, baina baita merkatu ekonomia eta enpresa askatasunaren gaitasuna ere. Hori oinarritzkoa da. Eta hasieratik, itunetan -Erromako Ituna- enpresa librearen kontzeptu hori finkatu zen, eta testu juridikoetan zati handi batean ekonomia eta moneta [...] mesede egiten zieten politikak martxan jartzen zirela ikusi genuen. Oinarriko ideia honakoa zen: enpresariaren askatasuna lortzeko mugak irekitzea. Hainbeste non 60ko hamarkadan Europa horrela eraikitzearen kontrako kritika ugari egon baitziren, izan ere, herrialde batzuetan askok “merkatarien Europa” zela esaten zuten, hau da, (komatxo artean) kapitalisten Europa.

Nire ustez, 80ko hamarkadaren erdialdean oso inflexio historiko garrantzitsu eta interesgarria egon zen, eta aipatzekoa da garai hartan sartu zirela Espainia eta Portugal Europar Batasunean. Une hartan presidentea zen Jacques Delors-en proposamen politikoak berebiziko garrantzia izan zuen, Estatuburuei eta Gobernuburuei itun antzeko bat proposatu zien zera esanez: “orain benetan ireki behar ditugu mugak eta pertsonak, kapitalak eta ondasunak trazarik gabe libreki zirkulatzea ahalbidetu behar dugu”. Hau da, lehiakortasun gehiago, lehia gehiago, produktibitate gehiago. Baina, aldi berean, horrelako proposamen argia orekatzeko (Thatcher andreak eta François Mitterrandek bere garaian ados azaldu ziren harekin), ba kohesio ekonomiko eta sozialeko politika bat garatuko dugu. Eta horri esker, gero eta gehiago zehazten joan zen Europako eredu ekonomiko soziala zer den. Alde batetik: askatasuna, produktibitatea, lehiakortasuna, arriskua, baina bestetik:

gizarte kohesioa, solidaritatea. Eta hori funtsezkoa izan zen. Eta une hartan, zorionez, Europan irismen handiko politikariak izan genituen -baina zoritxarrez, gaur egun ez ditugu gurekin-, adibidez, Jacques Delors, arestian aipatu dudan Françoise Mitterrand, baina baita Helmut Kohl eta Felipe González ere. Haiek apustu egin eta etorkizuna markatu zuten, eta eguneroko errealitatean kontzeptu hori, filosofia hori zehazteko gai izan ziren. Eta Felipe González izan zen Edinburgheko gailurrean oso erabaki politiko garrantzitsua ezartzeko gai izan zena, hau da, Europako aurrekontuak asko areagotzeko erabakiaz ari naiz, hain zuzen, aurrekontu horietan gizarte kohesioari askoz toki garrantzitsuagoa emateko.

Hau da, solidaritatera, kaltetuenen aldeko gastura, askoz zati handiagoa bideratu zen. Eta aurrekontuen errealitate honekin, pixkanaka gizarte kohesio horretarako bolumen osoaren ia erdia gastatzen joan ziren, eta Espainian Europako solidaritatearen laguntza jasotzeko aukera izan genuen. Eta herrialde honetan azken 25 urteotan gertatu denaren zati handi bat, hau da, modernizazio ikaragarriko errealitatea, garapen ekonomiko eta sozialerako gaitasuna, zati batean Europaren solidaritateari eskertu behar zaio. Herrialde honetan ez genituzke orain dauzkagun azpiegiturak izango Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF) egon izan ez balitz, edo ez genuke egungo Lanbide Heziketako maila izango Europako Gizarte Funtzak esku hartu izan ez balu, eta herrialde honetako Ingurumen azpiegiturak ere Kohesio Funtzari esker dauzkagu. Hori errealitate zehatz bat da, eta Europak ekarri duena ikusten da. Merkatu irekia, gaur egun beste alde batetik solidaritatea funtsezkoa da.

Nola defini dezakegu gaur egun Europako eredu ekonomiko eta soziala? Ekonomia lehiakor baten alde apustu egiten duen eredu bat da, produktibitatea eta langileen enplegarritasuna bateratzen dituen eredu bat, eta Europako iparraldeko herrialdeen emaitza onetan oinarritzen da. Eta hori ere Europaren alde onetariko bat da. Hau da, Europan, egunero elkarrekin lan egiteagatik, merkatu ireki horretan elkarrekin erlazionatuta gaudenez, mugarik gabe, esperientziak trukatzeko gaitasuna daukagu, eta zalantzarik gabe, Finlandia eta Suedia bezalako herrialdeak sartu izanari esker, alor askotarako sentsibiltate handiagoa lortu dugu, adibidez: genero berdintasuna, ingurumenarekiko sentsibiltatea (duela 20 urte herrialde honetan ez geneukan ia inolako sentsibiltaterik zentzu horretan) eta produktibitate ekonomiko eta gizarte solidaritatearen arteko oreka. Hau da, geure eredu ez da epe laburrean enpresariaren irabaziaz maximizatzea lortzea. Geure eredu irabaziaz lortzea, enpresariaren irabaziaz mesede egitea eta irabazi horiek lortzen laguntzea da, baina herritarren zerbitzuari dagokionez, epe luzeagora begira gauzatzen den proiektu batean. Giza garapenari buruzko eredu bat da, ekonomia, gizarte eta ingurumenaren alorretakoa. Hori Europan XVIII. mendetik Humanismotik jaso dugun herentzia da. Hau da, Europako herritarrek, Sevillatik Helsinkiraino, Dublindik Atenaseraino, oso barneratuta duten errealitate bat da. Hori da talde honen indarrak egiten zuena, guztien filosofia bat delako.

Eredu honek eskubideak ematen dituen arren, egia da ere erantzukizunak exijitzen dituela. Eta langabetuekin edo egoera txarrean daudenekin kolektiboki eskuzabala izan daiteke eta izan behar da, baina aldi berean, banakako erantzukizun itun bat exijitzen du, hau da, aktiboki lana bilatzeko erantzukizuna, etengabe prestatzen jarraitzeko erantzukizuna eta sistemaren inguruko gehiegikerien kontrol zorrotza. Eta egia da eboluzionatu dugula, hori guztia indar desberdinen arteko joko dialektiko bat da eta, baina adibidez,

Frantzian edo Alemanian langabetuen egoeraren inguruan egon litezkeen gehiegikeriak geldiarazteko ekonomia eta gizarte politiken alorretan egiten dituzten aldaketak ikusten ditugunean, eboluzio hori errealitate bat da. Erantzukizuna ikaragarria da. Schroeder jaunaren gobernu sozialdemokratak, duela zenbait urte, eta SPD alderdi alemaniarraren hautagaia izango den Steinmeier aholkulariarekin, soldatak eta zergak murrizteko joera zuen politika ekonomikoa ezarri zuten, produktibitate elementuak berriz sartu behar zirela ikusten zutelako, izan ere, gizarte prestazioak oso handiak zirela eta, gobernuarentzat ezinezkoa zen horiek modu osasuntsuan finantzatzea (argi esan behar da) eta ondorioz, herrialdeko produktibitatea murrizten joan zen, eta horregatik zen beharrezkoa produktibitate elementuak berriz sartzeara. Eta egokitzapen hori... Baina oinarritzko irizpideei uko egin gabe.

Europaren bereizgarrietariko bat nazioartean horrelako ereduia sustatzen duela da. Hainbat forotan egiten dugu, adibidez, LANE, ELGE, ONC (NBE, noski). Europako organizazioen Gobernu arteko egitura guztietan Europa eskubideak eta produktibitatea horrela defendatzen ditu. Interesgarriena zera da, eredu horrek funtzionatu egin duela. Eta mundu osoko aldaketa politiko eta ekonomiko guztien bitartez funtzionatzen jarraitzen du, baita teknologikoekin ere. Eta hori oso garrantzitsua da planteatzen zaizkigun aldaketa ekonomiko eta sozialetara –eta teknologikoetara- egokitzeko orduan, -baina geroago mintzatuko naiz horretaz-, baita oso aldaketa erritmo bizkorra duen gizartearen erronketara egokitzeko orduan ere.

Funtzionatzen du, izan ere, argi geratu da Bush presidentearen azken zortzi urteotako administrazioan neokontserbadore amerikarrek ziotena, hots, “babes gehiago, lan gutxiago”, ez dela egia, errealitateak erakutsi baitu gizarte babes gehiago eta lan gehiago izatea posible dela. Eta hori Europan gauzatu da, baina ez Estatu Batuetan. Geure eredu oso erakargarria da jende askorentzat. Gaur egun Europako Batzordean dauzkadan zereginen ondorioz, bidaia asko egin behar izaten ditut mundu osoan. Eta argi ikusi nuen... Esate baterako, aurtengo maiatzean Liman (Peru) egin zen Estatuburu eta Gobernuburu gailurrean, zeri buruz hitz egin genuen europarrok eta latinoamerikarrek? Merkataritzari buruz, noski. Merkataritza libreari buruz, noski. Baina ez genuen horri buruz soilik hitz egin, amerikarrek latinoamerikarrek egiten duten bezala, hau da, merkataritza libreko itunei buruz soilik hitz egin. Eskualde integrazioaz ere hitz egin genuen, eta ekonomia eta gizarte kohesioaz ere luze hitz egin genuen. Izan ere, herrialde latinoamerikarren buru gehienek kezka zera da, etorkizunean, beren herrialdeetan, herrialde gehienetan demokrazia finkatu ondoren, politika makroekonomiko iraunkor eta sendoak gauzatu ondoren, eta hazkuntza ekonomikoa ezarri ondoren, aberastasunaren banaketaren auzia. Eta Latinoamerikan aberastasunaren banaketa hobe bat izan ezean, berriro ere ekimen populistek aurrera egin ote dezaketen eta demokraziak arriskuak jarriko ote diren. Hori baita beti gertatzen dena. Latinoamerikan jendeak gehiago eskatzen du ogia demokrazia baino. Eta norekin hitz egiten dute Lula jaunak edo Uribe jaunak edo dena delakoak berentzat hain garrantzitsua den arazo horren konponbidea aurkitzen saiatzeko? Europar Batasunarekin, hain zuzen. Errentagarritasuna eta banaketa sozialaren arteko orekaren adibide historiko bat dugulako. Eta gauza bera gertatzen da Asian: Vietnam, Kanbodia, Filipinak... Nora jotzen dute beren arazoak konpontzeko? Europara. Hau da, 50 urtetan eredu bat izatea lortu dugu eta hori oso garrantzitsua da.

Ba al dago beste ereduren bat? Txina? Hau da, kapitalismo basatia, mugarik gabekoa, gizarte komunista batean? Ez, zalantzarik gabe, ez da eredu erakargarria. Eta Estatu Batuetan zer da ikusten duguna? Mugarik gabeko kapitalismo finantzarioak orain bizitzen ari garen krisia eragin duela ikusi dugu, baina ziur nago Joaquín Almunia gaur goizean horri buruz nik baino zehaztasun eta ezagutza gehiagorekin hitz egingo duela. Baina aipatzekoa da munduko herrialderik boteretsuenean, 45 milioi amerikar dituen lurralde horretan, biztanleek ez dutela Gizarte Segurantzarik. Eta milioika immigrantek hala moduzko lanak dauzkatela eta inolako lan eskubiderik gabe bizi direla. Gaur egun ez dugu... -barkatu- krisi finantzarioak ez du eragin bera izango European eta Amerikan, muga horietara iristea galarazten duen erregulazio sistema antzeko bat dugu eta, -baina ziur nago Claudio Aranzadik gero politika ekonomikoaren erronkei buruz hitz egingo digula-, eta European hori orekatzen jakin dugu. Gaur egun, nor eskua hartzen du modurik interbentzionistenean eta aitaren sozialismoaren irizpideen arabera? Bush jaunak. Atzo -edo herenegun- krisian dauden enpresetan eskua hartzeko eta krisi orokor -eta ikaragarri bat, ezta?- ekiditeko 1.000 milioi euro jartzea erabaki zuten. Hau da, Estatu Batuetako errealitatean galerak sozializatu egiten dira eta mozkinak, aldiz, pribatizatu. Horrek ezin du gure ereduak izan. Geure herritarrek ez lukete onartuko. Eta horregatik jarraitu behar dugu orain arteko bidetik.

Zergatik funtzionatzen du eredu honek? Hasteko, zalantzarik gabe, gizartean kohesio eta ulermen politikoko oinarri bat dugulako -nik ia filosofikoa dela ere esango nuke-. Herrialdeen ñabardura desberdinak dira beren historia, kultura eta abarren ondorioz. Baina nire ustez, geure ereduak arrazoi bategatik funtzionatzen du, hau da, hezkuntzari, prestakuntzari, berrikuntzaren alorreko gastuari eta ezagutzaren gizartearen garapenari lehentasuna eman zaielako, eta etorkizunean ere horrela jarraitu beharko dugu, eta horixe da Lisboan agenda gisa duguna, hau da, ezagutza gehiago daukan gizarte lehiakorrago eta indartsuago bat lortzea. Baina aldi berean, gero eta gizarte egoera indartsuago baten barruan, garapen iraunkorrera bideratutako helburua dugu.

Geure sistemak funtzionatzen du, gizarte elkarrizketa eta lan arloko politika aktiboak mantentzen jakin dugulako. Oso ongi gogoratzen dut Jacques Delorsek orain -ñabardura eta aldaketa ugarirekin- bizitzen ari garena martxan jarri zuenean zeukan kezketariko bat, hau da, gizarteko osagai guztiak integratzeko kezka. Bere Plana aurkeztu zuenean -Estaturu eta Gobernuarenei aurkeztu ondoren-, bere obsesioa Enpresaburuarekin eta Sindikatuekin hitz egitea izan zen: hots, ekonomia eta gizarteko eragile dinamikoekin hitz egitea. Hori ere maneiitzen eta garatzen jarraitzen dugun erreferente bat da.

Europa mailan oinarritzko egitura aldaketa batzuei aurre egin eta erantzun behar diegu, eta azkar-azkar hitz egin nahiko nuke horietariko batzuei buruz.

Gaur European eskulanaren % 40k "ezagutza sektoreetan" lan egiten du. Industriak dagoeneko eskulanaren % 20 baino gutxiago hartzen du soilik. Zoritxarrez, geure herrialdean % 32koa da, Suedian, aldiz, ia % 55koa. Hori dela eta, geuretzat Lanbide Heziketak, kalitatezko hezkuntzak eta I+Garen alorreko oso politika anbiziotsu eta eraginkorrek daukaten garrantzia azpimarratzen jarraitu behar dugu, baina horri buruz geroago hitz egingo dugu. Eta hori dagoeneko Europako apustu bat da, indar politiko gehienek apustu bat, eta bertan, Batzordea bultzada bat ematen saiatzen da. Hemen

datu interesgarri bat aipatu nahi dut. Ekialdeko talde zaharreko herrialde kide berrietan, 2004an Batasunera sartu ziren herrialde horietan, 20 eta 24 urte bitarteko gazteen % 88k derrigorrezko bigarren hezkuntza bukatu dute, Espainian, aldiz, % 62raino soilik iristen gara. Hau da, geurea baino ekonomia atzeratuagoetan, Espainian duela 20 edo 30 urte egin genuen bezala orain oinarritzko garapen arazoei aurre egiten ari diren ekonomia horietan, gazteak etorkizuneko enplegurako prestatzeko gaitasunari dagokionez, egoera hobean daude. Europar gaur egun prestakuntza gutxiko langileen langabeziaren batez bestekoa % 10ekoa da, Bigarren Hezkuntza daukatenen kasuan, aldiz, % 7raino jaisten da, eta unibertsitateko titulua daukatenen kasuan, berriz, % 4koa da. Oinarritzko datu horien aurrean erantzun bat eman behar dugu. Eta Europako Merkatuaren eredu sozialak –orain arte deskribatu dudana- hezkuntza lehentasun handiko esparru gisa jarri behar du, hau da, Hezkuntza Profesionalak, hezkuntzak eta etengabeko hezkuntzak kualifikaziorik altuena daukatela eta bakoitzaren merituen arabera eskuragarriak izatea ziurtatu behar dute.

Ikusten duzuen bezala, Europako eredu ekonomiko eta sozialari arlo ekonomiko eta monetarioari lehentasuna emanez ekiten diogu. Elementu horrek horrela jarraitu du eta horri esker, joera ekonomiko nagusietara eta aldaketa teknologikoetara moldatzeko gaitasun, oparotasun eta kalitatezko sistema hau dugu. Baina gizartearen errealitatea eta helburu sozialak, 80ko hamarkadan kohesio ekonomikoa eta sozialarekin geratutakoaren ondoren, eredua pixka bat orekatu ahal izan zen abentura politiko honetan parte hartzen duten guztien oinarritzko balore eta printzipioei dagokienez.

Gaur egun, inoiz baino gehiago, kontua gero eta ekonomia lehiakorrago batera egokitzea da, baina geure oinarriak, baloreak eta helburuak zalantzan jarri gabe. Askoz gehiago ahalegindu behar dugu jendeak lehiakortasun horren erronkei aurre egin ahal izateko. Hau da, globalizazioa guztioi ezarritako errealitate bat da, eta europarroi aukera garrantzitsuak eskaintzen dizkigu, balio erantsia dugulako, eta lehiaketa horretan toki on bat izateko lehia gaitetzke, baina argi dago horretarako Europa mailan guztiok, Estatu mailan, eta eskualde mailan, ahalegin handia egin beharko dugula horren guztiaren probetxua ateratzeko.

Hortaz, krisiaren aurreko erantzunak, globalizaziora egokitzeko erantzunak, ezin du ez protekzionismo komertziala, ez lan arloko kolokatasuna izan, ez Euskadin, ezta Espainian ere. Eta bakoitzak jardun dezala horretan.

Lehen Eskandinaviako herrialdeen eta herrialde horietako enpresaburuei entzutearen esperientzia aipatu dut. Haiek nolabait islatzen dute gizarte eskubidea eta lehiakortasuna eta arriskuaren arteko orekaren helburua, geure helburua. Interesgarria da enpresaburuei entzutea, adibidez, Nokia telefono eta abarren enpresa handiko zuzendari exekutiboak bere enpresaren arrakastaz galdetzen diotenean ez du teknologiaz hitz egiten – horri buruz hitz egin lezakeen arren-, ez du ratio ekonomikoei buruz hitz egiten -eta horri buruz ere abantaila handiarekin hitz egin lezake-; bere enpresaren antolamenduari eta giza kapitala baloritzeko moduari buruz hitz egiten du. Oso interesgarria da. Hau da, lehentasun nagusia elementu nagusiari, hots, hain garrantzitsua den giza kapitalari “probetxua ateratzea” da. Eta Finlandiako Lehen Ministroari Finlandiaren ekonomiaren arrakastaren sekretua zein den galdetzen diotenean -izan ere, azken urteotan oso ikusgarria izan da-, hark ez du desaruketaz hitz egiten, hezkuntzaren kalitateaz baizik, eta herrialdeak igaro zuen garairik lantzenean ere –termino

ekonomikoetan-, Sobietar Batasunaren gainbehera gainditu behar izan zuenean, hain zuzen, I+Garen alorreko gastu publikoa mantendu izanaz, hau da, berrikuntzaz hitz egiten du. Hortaz, oso argi ikusten dugu zein diren lehentasunak, eta nire ustez, hemen jarraitu behar ditugunak dira.

Beraz, nire ustez, Europa mailan –eta Europako alde honetan- aldaketa hauen aurrean produktiboagoak izateko gehiago inbertitu behar dugu giza kapitalean, eta hezkuntzan, prestakuntzan eta I+Gean inbertitzen jarraitu behar dugu. Baliteke gutako askorentzat Keynesen lanak berriz irakurtzea erabilgarria izatea une jakin batzuetan erantzun jakin bat emateko, lehen aipatu ditudan irizpideen arabera, krisi egoeran eskaria sustatzeko. Baina hori norberaren egoera finantzario eta ekonomikora egokitu behar da eta Europar Batasunak hasieratik izan duen tradizio historikoarekin jarraitu behar dugu: hau da, gizarte adostasunaren alde lan egitea, elkarriketa horretaz kezkatzea, eta arestian aipatutako solidaritate politika horrekin, eskualde politikarekin eta gizarte politikarekin jarraitzea. Gaur egun, Europako Ekialdeko lurraldeak Europako zergapekoek gauzatzen duten aurrekontuen ahalegin horren onura jasotzen ari dira, eta geuk ere denbora luzez jaso genuen hegoaldean. Eta hori ona da.

Euskadiren inguruko aipamen labur batekin bukatuko dut.

Euskadin, zalantzarik gabe, eta inork baino hobeto dakigu, erronka ikaragarriak dauzkagu geure aurrean. Zalantzarik gabe, gobernu berri bat, harkorra eta gehitzeko gai dena behar dugu. Eta batez ere, elkarrekin gainditu behar ditugun egiturako aldaketa handien aurrean lehentasun onak ezarri behar ditugu. Horri dagokionez, krisiaren kontrako irtenbiderik kaskarrena harropuzkeria da, eta itsurik txarrena bere propaganda soilik entzun nahi duena eta nioen bezala, ikasi, aurreratu eta gehitu nahi ez duena da.

Herrialdetik kanpo bizi garen, baina hemen gertatzen denaren berri dugunon ikuspegitik, oso ohikoa da independentzia ez dela euskaldunon arazo nagusia, hau da, guztion oinarriko askatasunak, globalizazioaren erronkei aurre egin ahal izatea, enpleguaren kalitatea hobetzeko beharra, hezkuntza hobetzeko beharra, berrikuntzan inbertitzea eta klimaren aldaketari eta biztanleriaren zahartzeari erantzutea dira arazorik garrantzitsuenak. Hori guztia ikusteko, beharrezkoak dira buru-argitasuna eta autokritika. Aurrera egiteko “etxetik atera” behar dugu, ezinbestekoa da besteengandik ikastea eta haiekin lan egitea. Baina hori da Europako alorraren alde ona, besteengandik ikastea. Eta hasteko, –eta honekin bukatuko dut-, hemen, Euskadin, hori modu konstruktibo eta solidarioan egin behar dugu, eta gainontzeko espainiarretatik hasita.

Mila esker.

## IÑAKI LÓPEZ GANDÁSEGUI

### *“Industria Politika Euskadin”*

---

Industria Euskadin geure ekonomiaren % 30 da. Espainiako batez bestekoa, aldiz, % 18 da. Beraz, aldea garrantzitsua da. Berez, noski, geure ekonomia eta Estatukoa bereizten dituzten beste elementu batzuk daude. Ez gara gai horretan sartuko, baina gertatzen ari dela dirudien zerbaiten inguruko azken ondorioari helduko diogu; krisiari buruz ari naiz, eta Enekok ere aipatu duen eta Espainian bizitzen ari garen dezelerazio ekonomiko honek Euskadin eragin txikiagoa daukala dirudi.

Euskadiko BPGaren hazkuntzaren murrizketa Espainiakoa baino txikiagoa dela dirudi. Gauza bera gertatzen da lanaren eraginari dagokionez. Eta adituen azalpenen arabera, badirudi funtsezko arrazoi horietariko bat geure ekonomian industriak ehuneko altuagoa daukala dela. Ikuspuntu horretatik, oso garrantzitsua dirudi industria politikatik, administrazioen sentsibilitatetik, industriaren defentsa euskal ekonomiaren oinarritzko elementu gisa ikustea.

Horren harira adierazten da industria Euskadin ekonomiaren bizkarrezurra eta ondorioz, Euskadiko gizartearen ongizatearen bizkarrezurra eta funtsezko oinarria izan dela, dela eta, nire ustez, izaten jarraitu behar duela. Hori dela eta, nire ustez, industria politikak oinarritzko lehentasuna izan behar du Eusko Jaurlaritzarentzat, oinarritzko lehentasuna administrazio guztientzat, benetan industria politika zuzena egiten ari dela bermatzeko, eta ondorioz, industriek, enpresa berriek, oso bilakaera positiboa dutela bermatzeko.

Beno, Euskadin dauzkagun planen legegintza egitura azaltzen hasiko naiz (eta hortxe jarriko dut zabalik) 2004an onetsitako Industria Legea dugu industria politikaren garapeneko ildoan funtsezko oinarri gisa. Horik aurrera planak garatu dira, adibidez, 2006-2009 Enpresa Lehiakortasun eta Gizarte Berrikuntza Planak, 2010 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana, eta lantzen ari diren eta Industria Legearen garapenak modu zehatzean betetzen joango diren beste plan batzuk.

Industria politikak ez die industriatik datozen neurriei soilik eragiten, noski, izan ere, beste elementu asko daude, hala nola, unibertitate on bat izatea, eta bertan oso Lanbide Heziketa ona eskaini ahal izatea... hau da, azkenean –eta berriz diot- industria lehiakorrak izatea eragiten duten azpiegitura egokiak izatea.

Legean eta planetan garatzen diren neurriak definitzen has ninteke, baina aspergarria izango litzatekeela uste dut, beraz, gaineratik igaroko naiz alderdi zehatzagoetan sartzeko.

Berez, industria politikaren alorrean dauzkagun neurrien multzoa –onetsi direnak eta garatzen ari direnak- Euskal Herrian, Euskadin, zabala dela esango nuke. Multzo osatua dela esan genezake. Neurriak definituta izatea ez da hain garrantzitsua, garrantzitsuagoa baita behar bezala zabaltzea, eraginkorrak izan daitezela lortzea eta azkenean industria politika horren azken helburuan eragina izatea lortzea. Industria politika ez da helburu bat berez, aitzitik, zera izan behar du... enpresak eta industria dira benetan politika horren industria helburua izan behar dutenak. Ondorioz, neurri horiek martxan jartzea eta behar bezala martxan jartzea izango da industria politika on bat daukagula edo ez garela ongi egiten ari esatea ahalbidetuko diguna.

Orain nik euskal industriaren ezaugarriak nola ikusten ditudan azaltzen hasiko nintzateke, hau da, nire iritziak ematen, oso ikuspegi mugatu eta partzialetik eman arren. Lehenengo eta behin, euskal enpresa multzoari buruzko ohar bat. Nire ustez, Euskadiko alde sendoetariko bat ezaugarri garrantzitsuak dauzkaten euskal enpresaburuak dauzkagula da, hau da, ekimen handikoak dira, negozioetarako sena daukate, enpresak martxan jartzean arriskuak onartzen dituzte... eta nik pertseberantzia ere azpimarratuko nuke. Negozioak, enpresa sortu berriak... Arrakasta ez da ez urtebetean, ezta hiru urtetan ere lortzen... Sarritan, urte askotan zehar lan egin behar da hasiera batean jaiotako ekimena enpresa batean mamitzeko. Nire ustez, Euskadin espiritu ekintzaile hori, euskal enpresaburuaren espiritu hori dugu zorionez, eta horri esker, nire ustez, oso industria sendoa dugu.

Horrez gain, geure industriaren ezaugarriak ere azpimarratu nahiko nituzte. Atzo Juan Tomás Hernanik zientzia eta berrikuntzaz hitz egin zigun. Eta zientzia eta berrikuntzaz hitz egiten denean, sarritan sektore berriez soilik mintzatu ohi gara. Nik tradiziozko sektoreen defentsa ere aldarrikatu nahi dut, izan ere, horiek dira gaur egun jarduera eskaintzen digutenak, eta nire ustez, gaur eta bihar ere oso garrantzitsuak izaten jarraitu behar dute.

Geure industria enpresen % 90ek heldutzat jo ohi ditugun jarduerak gauzatzen dituzte, eta maiz horrek mespretxuzko kutsu bat izaten du. Atzo, Juan Tomás Hernanik grafiko batzuk aurkeztu zituztun, eta bertan, metalen eraldaketa, metalezko produktu, plastikoen manufaktura, makina-tresna, material elektrikoa eta garraioko materialaren sektoreetan euskal industriaren ehunekoak Espainiako gehiengoa suposatzen zuen ia. Hau da, industriako ezaugarri jakin batzuk dauzkagu eta berriz diot, geure enpresen ezaugarrietariko bat geure espezializazio maila da. Eta gaur egun aberastasunaren % 90, lanaren % 90 eskaintzen dutenak dira.

Gainontzeko sektoreak etorkizunekoak dira, eta noski, bidezkoa da berrikuntza politikak bere ahaleginak sektore horietan kontzentratzea. Hau da, nanoteknologia, nanozientziak, biomaterialak... oso erakargarriak dira beren kontzeptuagatik, baina, momentuz ez dira aberastasun eta enplegu maila garrantzitsua eragiten ari. Nire ustez, denbora nahikotxo igaro beharko da oraindik sektore horiek aberastasuna eta enpleguaren alorretan ehuneko garrantzitsu bat bilakatzeko, baina horrek ez du esan nahi horiek garatu eta babesteko ahalegintzeari utzi behar diogunik.

Baina berriz aldarrikatu nahi dut ez dugula ahaztu behar gaur egun geure industriak suposatzen duena. Ikuspuntu horretarik, industria politikako baliabideen esleipenak, nire ustez, orekatua izan behar du, hartara, baliabideen esleipenaren bitartez egungo industria sektore sendoak benetan finkatzeko. Sektore horiek hobetzen joan behar dugu, eta horrez gain, noski, garatutako sektore berri horiei geure babesa eskaini behar diegu.

Nire ustez, hutsegite bat izango litzateke berrikuntzaren eremuko ahalegina, I+Garen esparruko ahalegina sektore berritzaileetan gehiegi kontzentratzea eta industria sektoreei laguntzeaz ahaztea, izan ere, -berriz diot- industria aberastasunaren funtsezko zati bat dira eta izaten jarraituko dute.

Hemen Euskadiko industriaren sektorearen inguruan dudak iritziaren inguruan gaintetik egindako sailkapen bat azaldu dut, eta seguruenik, datu batzuk ez dira oso zehatzak izango, beraz, barkamena eskatu nahi dut esandako zerbait ez



bada zuzena. Nire ustez, Euskadin alde batetik, multinazionalen filialak dauzkagu, eta hori aberastasuna da, gai garrantzitsua: Mercedes, Michelin, altzairugintza konpaktua... Petronor ere multzo horretan sartu nahi dut, izan ere, Repsol multinazional handiaren barruan dago, Petronor, noski, Euskadin oso sustraituta dagoen enpresa bat den arren. Baina beharbada, funtsezko elementu bat azpimarratzeko, enpresa handi horiek, -seguruenik Euskadiko garrantzitsuenak- ez daukate erabakiak hartzen diren guneak hemen.

Ikuspuntu horretatik, eta inoiz ez gertatzea espero dut, arrisku baten menpe gaude, izan ere, enpresa handi horien etorkizuna, lantegi handi horien etorkizuna, -zoritarrez- ez dago hurbileko erabakien menpe. Hau da, Mercedesek Alemanian hartzen dituen erabakien menpe egon daiteke, eta handik ikuspegi orokor bat dauka, hau da, industria multzo osoaren optimizazioaren ikuspuntu bat. Eta ezetz espero dut, baina kasu batzuetan gertatzen ari litekeen bezala -eta inoiz ere ez gertatzea espero dut-, lehiakorrek izateari utziz gero, baliteke industriak eremu batean deslokalizatzeko erabakia hartzea -hitz madarikatu hori-.

Oso garrantzitsua da Euskadin izan dezakegun eta lortzen ari garen bizitza maila islatzen duen lan-kostuaren diferentziala konpentsatzea. Zerbaitekin konpentsatu behar da. Prestakuntzarekin konpentsatu behar da, teknologiarekin konpentsatu behar da, industriak azkenean errentagarriak direlako inoiz joan ez daitezela. Nire ustez, ezin dugu gai hori saihestu. Epe ertain eta luzean errentagarritasuna erakusten ez badugu, deslokalizazio arrisku hori garrantzitsua da.

Aipatzekoak dira ere industria taldeak. Daukagun adibiderik handiena Mondragón Taldea da, eta gainera, aipatzekoa da talde kooperatibo gisa daukan ezaugarriak. Baina ez naiz talde horri buruz hitz egiten hasiko. Hemen oso ordezkari garrantzitsuak daude. Baina beno, argi dago industria egituraren funtsezko elementua dela eta ondorioz, sustatu beharko diren berezitasun horiek dauzka.

Bestalde, beste multzo bi ere bereizten ditut: "historia luzeko enpresa ertainak" eta "enpresa ertain sortu berriak". Kontzeptu horiekin bereizketa egin nahi nuen. Beno, CAF, Tubacex, Irizar... enpresa ertain gisa aipatzea, beharbada pixka bat zera da... baina berariaz egin dut enpresa handiak diren arren, nire ustez ez dugulako eskualde edo herrialde mailako konparaziorik egin behar: benetan liderrak izan nahi badugu, mundu mailako alderaketak egin behar ditugu. Eta ikuspuntu horretatik, geure enpresen neurria, oso garrantzitsua den arren, oraindik txikia da, eta nire ustez, gero ere errepikatuko dudana bezala, haz daitezela ere ahalegindu beharko dugu.

Ikuspuntu horretatik, historia luzeko enpresak dauzkagu -eta gero itzuliko naiz gai horretara- eta beste alde batetik, oso berriak izan arren, oso denbora laburrean aberastasun handia eta enplegu ugari eragitea lortu duten enpresak daude, eta horrez gain, ona izango litzateke ere Euskadin helburu hori lortu izanaren arrazoietan sakontzea.

Saillkapen horren beste puntu batean ingeniariak kokatu ditut... Nire ustez, ingeniariak kontzeptu gisa azpimarratu behar dira. Oso ingeniariak garrantzitsuak dauzkagu, adibidez, ENER, IDON, Iberinco... eta ingeniariak horiek zuzenean sortzen duten enpleguaz gain, nik garrantzi handia ematen diet industriari daukaten biderketa eraginagatik. Bereziki "giltza eskuan" proiektuen ingeniariari buruz ari garenean. Ingeniaritza batek kontratu bat lortzea...

Ba, Iberinco... (Hemen ezkerrean Iberdrolako ordezkari garrantzitsuak ikusten ditut). Ekialde Ertaineko herrialde batean ziklo konbinatuko zentral baterako kontratu bat lortzen badu, Dubaien eraikiko den proiektu horretako tresna asko, seguruenik, Euskadin fabrikatuko dira. Eta seguruenik, tresna horiek fabrikatzen dituzten enpresek ez lukete hori zuzenean lortzeko aukera hori izango, ingeniariak horrek ez balu kontratua lortuko. Hortaz, bereziki garrantzitsua iruditzen zait ere ingeniariak multzo garrantzitsu bat izatea, horrek ikaragarriko adierazle bat daukalako.

Eta, noski, Euskadiko industria enpresa txiki eta ertainen oinarria diren enpresen multzoa ere aipatu behar dut, baina izenik aipatu gabe. Batzuk historia luzeak dira, beste batzuk aldiz, duela gutxi sortuak, eta geure etorkizunerako garrantzitsuak dira eta izaten jarraituko dute.

Beno, ni gaur "tradiziozko teknologien" oraingo eta etorkizuneko garrantzia aldarrikatzera etorri naiz, izan ere, berriz diot, sarritan heldutzat jotzen dira, eta badirudi horren ondorioz ez direla hain interesgarriak jotzen. Metalurgiak oso garrantzitsua izaten jarraitzen du galdaketa, forjatzea eta siderurgiaren alorretan; ingeniaria mekanikoa, Euskadin tradizio handiko ingeniariak bat da; ingeniariak elektrikoa, elektronikoa, mantenua... ezagutzen ditugu makinak fabrikatzen jarraitzen dugu, eta ondorioz, helduak direla dirudi: makina-tresna, transformadoreak, erreduktoreak, motorrak, generadoreak, ponpak, konpresoreak... Industria egitura hori izatea oso garrantzitsua da, izan ere, mundu mailako eskaera garrantzitsua dago, eta azkenean, gauza ugari fabrikatu behar dugu.

Nire ustez, geure erroka mundu mailan nola jarrai dezakegun lehiakorrak izaten ikustea da. Eta argi dago ezin garela Euskadi edo Espainia mailan soilik jardutera mugatu, eta nik Europa mailara ere ezin garela mugatu esango nuke. Nola izan gaitzake lehiakorrak mundu mailan teknologia horiek garatzeko bidean dauden ekonomietan sartzen hasi badira? Aipatu ditudan makina horiek Brasilen, Mexikon, Txinan, Indian... hasi dira fabrikatzen. Baina ezin dugu etsi eta ezin dugula ezer egin pentsatu. Asko egin dezakegu, benetan geure fabrika enpresak mundu mailan liderrak izateko gai bagara.

Ondoren, interesgarria eta garrantzitsua iruditzen zaidan grafiko bat erakutsiko dizuet. Geure industrietako produktuen maila teknologikoari buruzkoa da. Teorian, maila teknologiko altuko produktuak daude... Dirudenez, oso ehuneko baxua dugu, % 2,8koa; % 49koa, ertain-altua, beraz, sailkapen ona; % 40,8koa, ertain-baxua; eta % 7,9koa, baxua. Deslokalizazioaren inguruan adierazi dugunak, nire ustez, ez du zerikusirik sektoreekin, produktuekin. Seguruenik lotura gehiago du maila teknologikoaren sailkapen honetako atal horretan prest ez dauden enpresekin. Ondorioz, nire ustez, industria politika horren lehentasunezko helburuetariko batek geure enpresen maila teknologikoa, geure produktuen maila teknologiko areagotzea izan beharko luke, eta horrekin, lehiakortasuna bermatzen ariko ginateke, baita enpresek epe luzera iraungo dutela ere.

Eta hor berriro itzultzen naiz I+Garen, hots, berrikuntzaren fokalizaziora, hau da, berrikuntza geure enpresek eskailera horretan gora egitea lortzeko bideratzeko gai bagara, lidergo teknologiko hori eta enpresa lidergo hori lortuko dugu.

Oso azkar ere... hona hemen enpresek 70 eta 80ko hamarkadetan bizi zuten egoera eta gaur egun izan behar dutena laburbiltzen duen grafiko bat. Seguruenik duela hogeita edo hogeita bost urte geure enpresek kanpoan zegoen multinazional baten lizentzia batekin fabrikatzen zuten. Normalean, salmenta

merkatua, produktuena, mugatu ziezaguketen. "Makila" kontzeptu bat zegoen, eta ondorioz, enpresa horien egiturak "balio erantsiko" jardueretako oso eduki gutxi zeukan, adibidez, ingeniarietan, norbere diseinuan... eta ekoizpen eduki asko zeukan –eta horrek ez dauka mespretxatzeko moduko elementurik, baina, ez du gaur egun lehiakorrak izateko eta bizirik irauteko beharrezkoa den indarra ematen-.

Gaur egun enpresa lehiakor baten ohiko profilak norbere produktu diseinua daukaten enpresetara bideratuago, kostuetan lehiakorrak izateko azpikontratazioa erabiltzen dute, merkataritza sare handi propioa daukate eta nire ustez, produktu bera egiten dute. Berriz diot; produktu bera egiten du – baina ezaugarri desberdinekin- eta errentagarriagoa eta lehiakorragoa izango da, eta gehiago iraungo du.

Hor aipatu eredu gisa hartu behar ditugun enpresa jakin batzuen adibide batzuk jarri ditut. "Industrian historia luzea daukaten enpresa" gisa aipatu ditudan horietariko batzuk gaur egun enpresa handiak dira, baina garai batean, segur aski, -eta ni ez naiz aditu bat, baina arrazoa dudala uste dut- zailtasun oneak ere igaroko zituzten; batzuk duela hamabost edo hogeit hamar urte desagertzeaz egongo ziren, baina irauteko erabakia zuzena hartu zuten, babesa eskaintzeko erabaki zuzena hartu zuten. Hamabost urte horiek igaro ondoren, enpresa horiek oso teknologikoak, lehiakorrak eta errentagarriak dira eta nolabait, garai batean zeuzkaten lanpostu guztiak ez galtzea lortu da, eta alderantziz, lanpostu berriak ere sortu dituzte.

Beraz, berriz errepikatu nahi dut zeinen garrantzitsua den tradiziozko teknologia horiek mantentzea, eta ondorio gisa, ondorengo adieraztera ere ausartuko naiz; Euskadin produktua eta gaitasun teknologikoa daukan enpresa batek ere ez lukeela desagertu beharko sarritan produktua edo teknologiarekin loturirik ez duten unean uneko arazoek ondorioz. Akzioekin edo okerreko kudeaketarekin lotutako arrazoen ondorioz edo bestelako arrazoi askoren ondorioz eragin daiteke enpresa baten porrota, nahiz eta kudeaketa, akzioen alorreko laguntza, etab. eskainiz gero, enpresa horrek lehiakorra izateko garrantzitsuagoak diren barneko baloreak izan.

Industria politikak horrelakorik gerta ez dadin ahalegindu behar du. Zoritxarrez desagertu diren eta seguruenik merkaturatu jarrai zezaketan enpresa batzuk ere aipa genitzake. Hori nire ustez, enpresa batek ere ez lukeela desagertu behar erakusten duen adibide argi bat da. Ez dut Astillerosen adibidea jarri, izan ere, desagertuko zela zirudien jarduera hura mantentzeko gai izan bagina oso garrantzitsua izango zatekeen, izan ere jarduera hori gaur egun oso garrantzitsua da berriro, baina ez soilik enpresarentzako, baita hornitzaile guztientzako ere, eta eragin biderkatzailearekin, gainera.

Enpresen tipologiari dagokionez, eremuz pixka bat aldatuz, agertzeko modu bereizgarria daukaten "duela gutxi sortutako industria enpresei" buruz ere hitz egin nahiko nuke, izan ere, nire ustez, industria politiken arreta izan beharko lukete.

Hasteko, sektore berri baten alde apustu egitea esan nahi du. Eta sektoreaz ari naiz, ez teknologiaz. Gero ez direla teknologia berriak aipatu genetzake eta; sektore berriak dira. Normalean, beharrezkoa da jardueraren eskaileran jauzi bat egitea ahalbidetzen duen merkatu-aukera jakin bat izatea –gero mintzatuko gara berriro horretaz. Normalean, beharrezkoa izaten da I+Garen alorrean inbertsio handiak egitea. Ondorioz, enpresario normal batek ezin die

bakarrik aurre egin. Argi dago laguntza publikoa behar duela, eta noski, baita kudeaketa taldeak ere.

Baldintza horiek aldi berean betetzen direnean, oso enpresa interesgarriak sortzen dira, hona hemen adibide batzuk: Gamesa, ITP, Aernova, Ingeteam... Benetan jaio dira egoera jakin bat aprobetxatu izanaren ondorioz, nire ustez. Gamesa Eólicaren kasuan –zuzenean gehien ezagutzen dudana aipatzen dut- 1995ean jaio zen merkataritzako aukera on baten ondorioz, izan ere, norbaitek parke batzuk antolatu zituen eta industrialki sartzera gonbidatu zuen. Eta hor multinazional handi bilakatu zen –Gamesa, hain zuzen- proiektu handi bat jaio zen.

Edo ITP, ehiza-hegazkin europarraren proiektua martxan jartzeak eragindako aukeratik jaioa. Senair-en ekimena, SEPIren laguntza eta –oker ez banabil-ezkerraldearen berrindustrializazioaren artean, ITP proiektuak jaio zen. Proiektu horrek gaur ere berebiziko garrantzia dauka eta gainera, enplegu maila altukoa da.

Aernova, hau da, bere garaian Gamesa Aeronáutica izan zenaren kasuan ere gauza bera gertatu zen. Aukera bat sortu zen –Embraerrekin-, kontratu bat lortu zen eta kontratu horretatik abiatuz eraiki zen enpresa. Ingeteam – 1996an sortu zutela uste dut (...), baina data hori jarri dut orduan jarri zelako martxan, orduan, Ingeteamek sektore eolikoa aukeratu zuen, eta gaur egun Ingeteam elektrizitate sektore jakin batzuk aprobetxatzen dituen ekoizpen hornitzaile handietariko bat dela uste dut.

Eta ikusten dugun bezala, zertan diharduen aztertzen badugu, ez gara bioteknologia edo nanozientziez ari –baina berriz diot, sektore horiek garatzen saiatu behar dugula-. Enpresa horiek Euskal Herrian betidanik egon diren gaitasun teknologikoak erabiltzen dituzte. Duela gutxi ITP bisitatu nuen. Ba beno, han... ITP enpresa handi bat da, material teknologia handia dauka, baina azkenean han mekanizazio zentro bat ikusten da, taladrina ikusten da... Eta horiek bai, mundu mailan teknologikoki garatuen dauden mekanizatuak direla esango nuke. ITPn daudenak bezalako lantegi gutxi egongo dira – mekanizatuaren diseinua eta ekoizpenari dagokienez-.

Azalpenak azkar ematen ari naiz, bestela luzeegi hitz egingo baitut. Duela gutxi sortutako industria enpresa txiki eta ertain horiek ere aipatu nahi ditut, oso interesgarriak baitira. Normalean, beren ezaugarrietariko bat hazkuntza handiko sektoreak aukeratu izana da, interes handiko teknologietako produktuak dira, lanpostuak goi-mailako prestakuntzakoak izaten dira, ingeniari eta tituludun ugari izaten dituzte, batez beste 200 eta 300 langile dauzkaten enpresak dira, ingeniaritza, I+G, patenteen garapena eta abarren alorreko eduki handikoak...

Eta zorionez, horien moduko enpresa ugari dauzkaten teknologia parkeak dauzkagu. Seguruenik horietariko asko hamar-hamabost urte barru multinazional bihurtuko dira eta epe ertain eta luzerako ezarpena izango dute. Ondorioz, nire ustez oso garrantzitsua da enpresa horien garapenari geure babesa eskaintzen jarraitzea, noski.

Politika horizontalari buruz geniona zehaztuz... nire ustez, Euskadin industria politiken alorreko programa sendo bat izan behar dugu, herrialdeko enpresa guztiei aplikatzeko modukoa, eta ondorioz, enpresa guztiek jaso behar dute I+Geko proiektuen onura, informazio teknologien garapenarena, kudeaketaren alorreko berrikuntzaren laguntzarena, etab.

Baina Euskadin nolabait sektorekako ardatzak ere izatea ona dela iruditzen zait. Sektore politiken alde jardun behar dugu. Norbaitek esan dit, ez dakit sektore politikak European debekatuta ote dauden... Beno, ba nik... Gauza bat da debekatuta egotea (komisarioa niri begira dago... eh?), baina beste moduren batera aipatuko ditugu. Ardatz bat izan behar dute, eta nire ustez, irizpide horiekin bateragarria da, hau da, ekimenak Euskadin hobeto prestatuta gaudela pentsatzen dugun sektoreak garatzen saiatzea. Ondorioz, Euskadi sektore jakin batzuetan liderra izatea lortzeko, irizpideekin bateragarria izanik, ardatz hori egotearen alde nago.

Eta bukatzeko, aipatu genitzakeen neurri zehatz batzuk... berrikuntza eta I+Garen eremuari dagokionez, atzo Juan Tomás Hernanik azaldu zigun bezala – eta ez dut hark esandakoa errepikatu nahi-, oso garrantzitsua da I+G bideratutako BPGaren ehunekoa areagotzen jarraitzea. Eragile eta zentro teknologiko sare indartsua daukagu. Nire ustez, ikuspuntu horretatik beste Autonomia Batzuen inbidia pizten dugu. Eta are gehiago esatera ausartuko naiz, zentroen arteko gainjarpen gehiegirekin. Ikuspuntu horretatik, zentro horien arrazionalizazioa oso garrantzitsua da, horrek eraginkortasuna hobetuko du eta. Nire ustez, I+Garen baliabideen ehuneko altu bat menperatzen ditugun produktu eta teknologiak hobetzera bideratzen jarraitu behar dugu.

Ondorioz, esan bezala, industria enpresak sustatu eta bultzatzen jarraitu behar dugu eskaileran gora jarrai dezaten... edo lehen produktuari buruz geniona bezala, gauza bera eginez, teknifikatuagoa, lehiakorragoa eta diseinuzkoagoa den produktu bat ekoiztea, patente berriak sortzea, etab. Eta horrek, berriz diot, mundu mailan lehiakorrak izateko aukera emango digu.

Horretarako, noski, geure enpresa nazioartera eramateko prozesu bat dakar, baina ez du zertan deslokalizazioa eragin. Guk geuk –eta Aernova jarriko dut zuzeneko erreferentzia gisa- Mexikon ezartzeko prozesu handi bati ekin diogu, eta bertan benetan sortuko dugu enplegu ugari, baina noski, hemen enplegua murriztea ekiditeko da. Guk ez dugu epe ertainean industriaren eremuko enpleguan inolako arazorik sortu nahi, gutxienez, Espainian dauzkagun zentroak mantendu nahi ditugu... Enplegua, ingeniariak eta proiektuen kudeaketari dagokionez, asko haziko gara, ondorioz, lehiakorrak izan behar dugu lehiakorrak diren beste herrialde batzuetan ekoizpen lantegiak izateko, enpresak orokorrean lehiakorra izaten jarraitzeko.

Ongi. Ingeniaritzak aipatu ditut. Berriz diot oso garrantzitsua dela ingeniariaren papera sustatzea, daukaten eragin bultzatzailearen ondorioz. Giltza kontratu bat eskuan izateak –berriz diot- eragin handia dauka, eragin biderkatzailea, izan ere, giltza proiektu horretako makina guztiak Euskal Herrian fabrikatu ahal izatea lortu baitezakegu...

Bestalde, oso garrantzitsua iruditzen zaidalako eta berez, garatzeke dauden ildoak aurrez ikusita daudelako, industria taldeen sorrera ere aipatu nahiko nuke: aliantzak eta bat-egiteak, euskal akzio-nukleoak... Nire ustez, oso alderdi garrantzitsua da, azkenean, eta noski, merkatu libreko ekonomiaren barruan, euskal enpresarik onenek ere euskal akzio- nukleo bat izatea lortzea, eta beharbada, etorkizunean kapital arrisku enpresa handi bat, industria enpresa handi bat, bere taloitegiarekin etortzea, eta nolabait enpresa horien erabaki zentroak eramatea ekiditea. Hori funtsezko elementu bat da.

Ikuspuntu horretatik, ekimen irekiak daude, Eusko Jaurlaritzak 400 milioi euroko funts estrategiko hori onetsi berri du eta nire ustez, ongi erabiliz gero, elementu positiboa izango da... Bestalde, euskal kutxek inplikazioan, euskal industrian duen papera –luze iruzkindua- dago, eta aipatzekoa da kasu askotan gaur egungo baino handiagoa izan zitekeela.

Hortaz, oinarritzkoa da, hau da, nire ustez, gaur egun teknologia eta lehiakortasun ereduak diren enpresak euskal inbertitzaileen akzio-nukleoa izaten jarraitzeko –edo indartzeko- joera indartu beharko genuke –are gehiago-. Maiz badirudi hobe dela geure aurrezkiak urrun dauden enpresetan inbertitzea, baina hemen inbertsio horri errentagarritasuna eman diezaioketen enpresa handi eta interesgarriak dauzkagu.

Honekin bukatuko dut. Lehen aipatu dudan bezala, normalean dagoeneko alderatutako enpresariak dauzkaten eta industria enpresa handi bat sortzea eragin dezaketen proiektu serio posible horien, hau da, aberastasuna eta lana sortzen dituzten proiektu horien inguruko sentsibilitatea ere azpimarragarria da.

Ongi. Bukatzeko, Eusko Jaurlaritzak industria politikari lehenetsua eman behar diola adierazi nahiko nuke, eta are garrantzitsuagoa da egungo egoera ekonomikoaren aurrean, horrela, azkenean, industria politikaren bitartez, geure enpresei eskainitako babesaren bitartez, ekonomia mantentzea eta hobetzea lortzeko eta ondorioz, euskaldunon ongizatea hobetzeko.

Mila esker.

---

## CLAUDIO ARANZADI

### *“Energia politikaren erronka berriak”*

---

Lehenik eta behin, “politika ekonomikoaren erronka berriak” bezalako izenburu durunditsu batek sor dezakeen ikusmina arindu nahiko nuke. Nire asmo bakarra, denbora badago, eztabaida piztu dezaketzen zenbait gai iradokitzea da. Irtenbideak Joaquín Almunia, Europar Batasuneko Ekonomia Gaietako Komisarioak, emango ditu; arazo horiek oso ondo ezagutzeaz gain, haien esparruan jarduten du eta.

Bigarrenik, “berriak” terminoarekin esan nahi dudana apur bat zehaztu nahiko nuke. Bistakoa da azken hamabost edo hogeitun urteetan nazioarteko eta nazio barruko alor ekonomikoak zehazten duten faktoreetan funtsezko aldaketak egon direla. Normalean guztien ahoetan dauden horietako batzuk aipatzearren, globalizazio ekonomikoaren areagotze azkarra egon dela esan dezakegu. Alde batetik, informazio eta komunikazioaren teknologiaren arloan berrikuntza ugari gauzatu dira. Bestetik, teknologia hauek etengabe barneratu dira bai ekoizpen prozesu guztietan, bai kontsumorako produktuetan, eta horretaz gain, Txina, India eta -heine txikiago batean- Brasil bezalako garapen bidean dauden bolumen handiko ekonomien eboluzio azkarra ere gertatu da.

Beste arlo batean, aipatzekoa da klima-aldaketak eta honekin gasen emisioak dakarren berotegi efektuak pizten duen kezka geroz eta handiagoa. Honek guztiak zenbait berrikuntza ekar lezake nazioartean. Nazio barrukoari dagokionez, Europar Batasunean guztiz finkatu izana, Moneta Batasunean sartzea eta immigrazioaren hazkunde handia aipa litezke agian. Eta epe laburrean, egun pairatzen ari garen eta batez ere AEBetan eragina duen krisi finantzarioa ere azpimarra daiteke.

Erronka berri hauen guztien aurrean, edo mundu mailako ingurugiro ekonomikoaren datu berrien aurrean, politika ekonomikoak, makropolitikak, politika fiskala edota moneta politika ditugu -egun moneta politika ez dugu guk egiten, Europako Banku Zentralak baizik-. Hauek guztiak “politika makroekonomikoak” dira. Industria politikari dagokionez, eztabaida sortzeko joera handia duen eremua da. Bere gain hartzen ditu ere erakunde politikak, bitzita ekonomikoari eragiten diotenak, eta birbanaketa politikak edo babes sozialekoak.

Hau da, hiru politika mota hauek -makropolitikak, mikropolitikak eta birbanaketa edo babes sozialeko politikak- beren baliabideak hobetu dituzte teknikoki, baina, oinarrian, erronka berri hauekin guztiekin, ez dira gehiegi aldatu. Honek ez du esan nahi, egungoa bezalako krisi garaian agertu ohi diren irudimenezko politiken edo burutapen bikainen eta mirarizko irtenbideen alde egon behar dugunik. Eta are gutxiago, imintzio politikoetan oinarrituriko politika baten alde. Ziurrenik guztiek ezagutuko duzuen esaldi ignazianoak, hau da, “krisi garaian ez egin atxe-aldaketarik”, arlo ekonomikoan ere badu bere aplikazioa. Kasu honetan, “zuhertasun asko eta inprobisazio gutxi izan behar da”, batez ere egungoa bezalako egoera bortitzean.

Nire iritziz, Espainian krisia hasi izanaren egoerak, tamalez, hainbat eztabaida ekarri ditu berarekin: Gobernuak gauzak diren bezala aipatzen ari ote zen; dezelerazio, geldialdi edo atzeraldi batean ote geunden, edota are gehiago, gobernuak gizarteari informazioa ezkututzen ari zela. Gobernu batek adierazle

ekonomikoak estali ditzakeela uste al dute ala?! Tira, horrelako zerbait entzutea guztiz harrigarria da.

Gertatzen dena da, jendeak uste duela gobernuek bankuek eta analistek baino informazio gehiago dutela ekonomian gertatzen denaren inguruan, eta hori ez da egia. Normalean, bai gobernuek bai erakunde ezberdinen ikerketa zerbitzuek edota analistek aldi berean izaten dute adierazle ekonomikoek esaten dutenaren berri. Horregatik, ez dugu oso ondo ulertzen Gobernuak egoera ekonomikoa ezkutatu duela etengabeko salatze joera hori. Langabeziaren datuak, inflazioarenak edo baloreen merkatuaren eboluzioari buruzkoak agente ekonomikoek jakiten duten mementoan bertan ezagutzen ditu Gobernuak.

Hortaz, uste dut eztabaida hauek guztiek denbora asko kendu diotela berez eztabaidagai nagusi izan beharko lukeenari, hartu beharreko neurri ekonomikoari, alegia. Eta behin hartu beharreko neurri ekonomikoari arreta gehiago eskaintzera iritsi garenean, kasu askotan, garrantzi gehiago eman zaio kopuruari kalitateari baino. Hau da, garrantzitsuena krisiaren aurkako politikan hartu diren neurrien kopurua izan da. Eztabaida bat egon da, zeinean hamabost neurri, ala hogeitaz, ala hogeita hamar, ala hogeita hamabost nahikoak izango ziren iharduki den. Eta hori guztiz txundigarria da. Ez dirudi zentzu handia duenik krisiaren aurkako plan bat hura aurrera eramateko dauden neurri kopuruaren arabera kalifikatzeak.

Azkenik, gaur egungoa bezalako egoera batean, iragarpen apokaliptikoak azaleratzen hasiak dira. Aro ekonomiko baten bukaeran gaude, eta beste bat hasi behar da. Guztiok izango duzue gogoan, laurogeita hamarreko hamarkadaren bigarren erdialdean ekonomia berriarekin gertaturikoa. Orduko hark haustura bat izan behar zuen, paradigma aldaketa bat, aro berri baten hasiera. Egia da ere, garai hartan merkatuko ekonomiaren urrezko garaia hasiera izango zela zirudiela.

Baina 2000. urtearen hasierako burbuila teknologikoaren ziztadak erretorika horrekin guztiarekin amaitu zuen. Merkatuko ekonomiaren desagerpena, edo, era lasaiago batean, interbentzioa eta merkatuaren arteko erlazioen aldaketa garrantzitsua iragartzera iritsi ziren. Dena dela, nire ustez Churchilllek demokraziari buruz arlo politikoan esaten zuen gauza bera esan daiteke merkatu ekonomiari buruz, arlo ekonomikoaren barruan: "sistema ekonomikoaren artean okerrena da, beste guztiak alde batera uzten baditugu". Hau da, ez dugu ezagutzen, ezin gaitezke "Nirbanaren iruzurra" deitzen zaion horretan erori. Ez gara ekonomia erreala ekonomia idealekin alderatzeaz hitz egiten ari, ekonomia erreala elkarren artean alderatzeaz baizik. Beraz, gustatu ala ez, esperientzia historikoak erakusten digu merkatu ekonomia inperfektuak eta ezegonkorak izateaz gain, krisiak eragiten dituztela... baina, ez dago beste aukera hoberik -historikoki frogatua izan denik, bederen-.

Bestalde, interbentzionismo publikoa beharrezko osagaia dugu merkatu ekonomientzat, baita sistema ekonomiko liberalizatuenetan ere. Lehenik eta behin, merkatu ekonomia erakundeak behar dituelako. Esku-hartze publikoaren bitartez sortzen diren erakundeak. Liberal fundamentalistak izango dira ezetz esaten dutenak eta horrekin batera, Ekonomiako Nobel saria den Vernon Smithek "arrazionaltasun ekologiko" gisa izendatzen duen horri funtzionatzen utzi behar zaiola defendatzen dutenak; hau da, erakundeek beraiek saiakuntzazko- eta akatsezko mekanismo moduko baten bidez garatzen joan daitezten, eta bertatik ateratakoa ondo aterako da ziurrenik.



Hori ez da sekula gertatu, normalean gertatzen dena bien konbinaketa bat baita. Egia da batzuetan erakunde ekonomikoak saiakuntzazko eta akatsezko mekanismoen emaitza direla, baina beste batzuetan ondo irteten dira. Kasu askotan, Vernon Smithek berak "arrazionaltasun eraikitzailea" deitzen duen hori, nolabait esateko, bere ingeniariaren arrazionaltasuna izango litzateke; hau da, erakundearen eraikuntzaren arrazionaltasuna, erakundeak diseinatzeko orduan.

Interbentzionismo mota hori oso garrantzitsua da, zeren eta erakunde ekonomiko ahulak dituen merkatu ekonomia batek, bide ematen baitio, adibidez, Errusian gertatukoari. Errusia, adituen mundutik etorritako "ofizial burutsu" batzuen aholkularitzarekin, pribatizazio prozesu batean murgildu zen, erakunde ekonomiko oso ahul batzuetatik abiatuta. Petrolioaren prezioak orduan eginiko hainbat kalte hein handi batean salbatzea lortu du. Baina, berez, Errusiarentzat zentzuzkoena erabaki jakin batzuk hartu aurretik merkatu ekonomiako erakunde sendoak izatea izango litzateke, bukaerako prozesua berbera izango zela onartu behar izango balute ere.

Bistakoa da ere, merkatu lehiakorrek bermatzeko, lehiakideek eginiko politikaren bidezko interbentzionismo publikoa behar dela. Merkatu lehiakorrek ez dira bakarrik bermatzen. Egia da ere, zenbait politikariren ustetan kompetentziazko politikak ez lukeela existitu behar, guztia bakarrik doitzen baita... baina beno... gutxienekoen ahotsak dira, eta horrenbestez, kompetentziazko politika interbentzionismo ekonomikoa justifikatuztat jotzen duen beste elementu bat dela onar daiteke. Eta gero bistakoa.

Politika makroekonomikoan, ia guztiak onartzen dute moneta politika gidatzen duten Banku Zentralek egon behar dutela, eta gobernuek zerga politika erabakitzen dutela. Erregulazio batek egon behar duela merkatuko akats garrantzitsuak pairatzen dituzten merkatuko sektore ezberdinetan ematen diren akatsak zuzentzeko, eta ezinbestean, politika birbanatzaile bat eduki behar dela.

Arazoa, hortaz, ez da merkatu ekonomia batean interbentzionismo publikoak existitu behar ote duen, argi baitago existitu behar duela. Kopurua ere ez da arazoa, hori izanik egun eztabaidan dagoen gaia. Ez, orain... interbentzionismo publiko urria zegoen eta aurrerapauso bat emateko, egin behar duguna interbentzionismo publikoa askoz handiagoa den egoera batera igarotzea izango da. Funtsezkoa ez da kopurua, kalitatea baizik. Merkatu ekonomia bat mantentzeko lanak exijitzen duena -eta hau iritzi pertsonala da- interbentzionismo publikoak justifikatuta egotea da. Hau da, interbentzionismo publikoak justifikatuta ez dagoenean, merkatu ekonomiak izan behar du automatikoki jardun behar duenak. Eta ez alderantziz. Edo beste era batera esanda: merkatu ekonomia batean arazoaren ardura interbentzionismo publikoak eramaten du bere gain, eta ez merkatu librearen funtzionamenduak. Honen adibide argi bat egungo gazteek INIa zer den ez jakitea da, ezta? Hau diktadoreak 1941ean asmatutako zerbait zenez, eta guk harengandik herentziaz jaso genuenez... baina bistakoa denez, krisi egoera batean gaudela pentsatuta ere, INI berri bat eraikitzea eramango gintuzkeen interbentzio bat. Benetan esanguratsua dena zera da, krisi ekonomikoa egon zen epe batean, demokraziaren hasieran alegia, UCDren gobernuekin, INIak krisian zeuden enpresentzat babesleku papera bete zuela. Eta ekintza hau, nire ustez, justifikatuta zegoen, garai horietan funtsezkoena demokrazia babestea baitzen; nahiz eta, nolabait esateko, ez zen ortodoxoegia INIa hazten ari ziren enpresentzako ospitale gisa erabiltzea.

Beste aldetik, memento hauetan zuzeneko esperimentu baten lekuko izaten ari gara –eta zoritxarrez, hau ez dago gaseosarekin eginda- zeinean zenbait interbentzio publikoren funtzionamendua ikusten ari garen AEBko finantza krisian. Aurreko interbentzioak nola funtzionatzen zuen eta berriak zer egiten duen ikusten ari gara aurrekoaren akatsak zuzentzeko. Inork ez du zalantzapean jartzen bankuen sektoreak araututa eta era berezian gainbegiratuta egotearen beharra, beste sektoreengandik ezberdinduz. Financial Times-eko Martin Wolf-ek dioen moduan, bankua *essential utility* (ezinbesteko etekin) bat da, bankua komertzialaren alderdi tradizionalan eta ordainketa-sistemaren puntu zentralean bederen. Horrenbestez, araututa egon behar du. Baina Martin Wolfek berak adierazten duenez –karikatura batekin ziurrenik- memento hauetan banku amerikarraren alderdi handi bat *utility* bat eta kasinoen arteko erdibidean dagoen konglomeratu bat da. Hau, ezbairik gabe, gehiegikeri bat da, baina tira, karikatura moduan ez dago gaizki.

Banku sistema, edo hobeto esanda, banka komertzial tradizionala, *essential utility*tzat jo daiteke, eta horretaz gain egun hain modan dagoen faktore hori bereganatzen du, “arrisku sistemikoa”, alegia. Hau da, argiago esanda, kutsatua izatearen proklibitatea, domino efektua, edo antzeko kontuak. Sektorean parte hartzearen zergatia emateko orpoan gaude.

Agerikoa dirudiena zera da, AEBetan erregulazio honek ez duela funtzionatu. Gutxienez, Martin Wolfen hitzak gogoan hartuz, kasinoaren alorrean. Benetako geldiune itzelak ahalbidetu ditu zenbait erakundetan. Ez du informazio nahikoa exijitu, ez egoera finantzarioari buruz –zenbait instituzioena- ezta produktu jakin batzuei buruz ere. Entitate askotan, “berrikuntzarekiko bertigo” moduko batek bultzatuta edo, arriskuaren kudeaketa desegokia burutzea baimendu du, geroz eta konplexuagoak diren produktuen belaunaldietan, zeinak espezialista esanguratsu gutxi batzuek soilik ulertzen zituzten. Zaila zen arriskua baloratzea, zaila zelako ere ondo ulertzea zertan zetzan produktua. Eta horrek guztiak, noski, inbertitzaile ez sofistikatuen babes falta nabarmena eragin zuen. Zenbat eta berrikuntza gehiago egon, orduan eta babes handiago behar da, edo bestela, jakina, inbertitzaile sofistikatuen ez daki zer besori eutsi. Inbertitzaileak entitatearen ospeaz eta kaudimenaz fidatu beharra dauka, nolabait esateko.

Esan beharra dago, eremu honetan, Espainiako Bankua kontrapuntu bat izan dela. Bankuen gaineko erregulazio eta gainbegiratze kontserbadoreago bat eramán du aurrera, eta hortaz, AEBetako sistema finantzarioaren deriba hauek saihestu ditu. Orain ikusteke dago nola funtzionatuko duen aurreko parte-hartzearen efektu zitalen zuzenketekin erlazionaturiko parte-hartzeak. Agerikoa da FEDren eta beste Banku Zentralen aktibismoa, likidezia dosi erraldoietan sartzen duena, guztiz akatsgabekoa dela. Eta honek, 29ko krisiarekin alderatuz, ezberdintasun nabarmen dat uzten du agerian, mundua gainera eroriko zaigula iragartzen duten haien zuzentzat.

Eztabaida handiagoa pizten ari dena krisian dauden entitate finantzarioak salbatzeko erreskate politika da. Ez horrenbeste, duten beharragatik. Inork ez du zalantzarik beharrezkoa dela arrisku sistematikoa sistema finantzarioaren barruan mugatzea... zeren, demagun, banku sistema kolapsatzen bada, ekonomia ere kolapsatuko da, eta domino efektu hori ahalbideratuko balitz, krisia guztiz katastrofikoa izango litzateke. Badaude eztabaidak –eta lehenago Enekok honi buruz zer edo zer zioela uste dut- eta hauen erruz, “zuzentasunaren kontrako atentatu bat” burutu dela sentitzera irits gaitezke. Hau da, funts publikoen erabilpena akats pribatuak zuzentzeko.

Egia da ere hau zehaztu beharra dagoela, ezen AEBetan, kasu gehienetan, interbentzio finantzarioa egoera zehatz batekin egon baita erlazionatuta: akzionistek euren akzioen balorea ia osorik galtzea, alegia. Hau da, neurri handi batean akzionistek doikuntza pairatu dute. Eta ez mailegu-emaileek. Freddy eta Fanny famatuen kasuan, helburua, preseski, funtsen hornitzaileetako batzuk babestea zen haiek atzerriko banku zentralak, edo instituzio publiko atzerritarrak zirelako; beraz, funtsak maileguz eman zituztenean, eginiko arriskuaren balorazioan okertu ala ez, argi dago babestu dituztela.

Arrisku morala sortzeagatik ere -hau da, zer neurritan suspertzen du honek etorkizuneko jokabide axolagabeak- eta baita bere efektu makroekonomikoengatik. Oraindik ez dakigu noiz bukatuko diren interbentzioak AEBtan, baina zentzuzkoa denez, honen ondorioa AEBen zor publikoa areagotuko da. Ez dakigu asko ala gutxi. Asko bada, arriskua dago ere -eta honi buruz Manuel Almunia duen iritzia jakin nahiko nuke- moneta politikaren aldetik. Izan ere, zenbat eta zor publiko handiagoa izan, orduan eta inflazioa jasateko joera handiagoa dago.

Gazteak ez dute gogoratuko, baina zaharrenek izango dituzte gogoan krisi latinoamerikar haiek. Orduan, "zorra ordaindu" deitzen zizaien ekintzari. Tira ba, "zorra ordaintzea" termino nominaletan zorrak balio berbera izaten jarraitzen duela esan nahi du, baina inflazio handia badago, termino errealetan geroz eta gutxiago balio du. Ez diot lurralde serioetako Banku Zentralek horrelakorik egingo dutenik, baina AEBko zorraren hazkunde handiak onarpenerako joera sentazioa sortzen du, zalantzarik gabe, eremu honetan. Eta hau dena, interes tasen gainerako eraginak eta dolarraren kotizazioa alde batera utziz.

Egoera honen aurrean, nolana ere, ezer gutxi erabaki dezakegu guk, akaso otoitz egin azkenean egonkortasun puntu batera irits daitezten eta egungo egoerarekin amaitu dezaten... eta beno, itxaron ere itxaron dezakegu AEBak desarauketa bat onestea zeinarekin aurreko arauketan eginiko akats batzuk - guztiak ezinezkoa izango litzateke- ekidingo liratekeen. Eta agian -badago holakorik dioen jendea- banka eredu berri bat. Hau da, AEBko bost inbertsio banku handiak kolpatuta daude azkenean. Orduan, zenbait pertsonen ustetan gerta liteke bankak sendotuz gero, banka tradizionalaren antzeko eredu batera bueltatzea, banku espainiarrek egiten dutenaren antzera.

Lehen esan bezala, zorionez Espainian Espainiako Bankuaren ikuskapena kontserbadoreagoa izan da, bai hornidura politketan, bai arriskuak onartzeari buruzko kontrol politketan. Ez dugu inbertsio banku handirik, eta kreditu erakunde nagusien politika zentzuzko politika bat izan da. Hortaz, horri esker, sistemaren kaudimena babestu ahal izan da.

Horrek ez du esan nahi ezin denik arazorik egon. Argi dago erakundeen likidezaren esparruan arazo ezkutuak egon daitezkeela. Kontu korrante bidezko defizitaren ordaina kanpoko aurrezkira jotzeko joera bat izan da, eta hori adibidez, Espainiako banku sistemaren zorra epe ertainera jarritz gauzatu da. Kreditu erakundeen epe ertainerako zorra berriz finantzatzeko aukerak gogorrago bihurtzen ari dira, merkatu hori berriz nazionalizatzen ari baita. Guk lehen jarduten genuen... zerga esaten genuen: "ez, kontu korrante bidezko defizita berdina da, azken finean, Moneta Batasunean parte hartzen dugu... Arazoa Moneta Batasunak gainontzekoekin daukan kontu korrante bidezko defizitaren arazoa izango da (hau da, Moneta Batasuneko herrialdeena)". Baina orain, bankuko finantzaketako handizkako merkatuak berriz nazionalizatu direnez, egungoa bezalako egoera batean, birfinantzaketa zailago bilakatzen

dela eta ondorioz, garestiagoa dela ikusten dugu; eta ondorioz, kredituaren kostuan eragina izan dezake.

Kontua da une honetan argi dagoela kreditua dezeleratzen ari dela. Beraz, zergatik ari da dezeleratzen? Zergatik eskatzen dute gutxiago enpresek? Zergatik ari dira kreditu erakundeak arriskuak kontrolatzeko politika zorrotzago bat gauzatzen? Edo kreditu erakunde batzuk Gobernuari nolabait esku hartzeko eskatzen ari dira likidezia arazoak egon daitezkeelako, eta orduan, Estatuak zera egin behar du...?

Argi dago kredituaren bilakaeraren hiru baldintza horietariko bakoitza ez dela berdina, eta Gobernuak ere desberdin jardun beharko luke egoera bakoitzaren arabera, baina beno, nolana ere, hori zalantza bat da. Bestea, noski, Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan ez bezala, Espainian oraindik ia ez dela aktibo higiezinaren prezioa zuzendu da, hortaz, ikusteke dago zer gertatuko den ekintza hori gauzatzean.

Nire ustez, Gobernuak krisiari aurre egiteko egin duen politika zuzena da. Baita datozen garaietarako aurrez ikusitakoa ere. Zero gastu publikoko –edo negatiboko- hazkuntza, eta egonkortzaile automatikoei ekiten uztea. Horrek zer esan nahi du? Hau da, ez dela ezarpen tasak murrizten hasteko unea –sektore batzuetan horixe proposatzen ari diren arren-, eta ez da gastu publiko diskrezionala areagotzeko unea ere.

Zorpetze maila baxua dugun arren -% 40 baino baxuagoa-, eta ondorioz, jarduteko gaitasun garrantzitsua badugu ere (askok Pedro Solbesi kritikatu zioten lehenagoko superabit politika baten ondorioz), zorpetze publikoko maila baxua dugun arren, zentzuzkoa da badaezpadako aurrekontu bat uztea, hasteko, balitekeelako kreditu sisteman esku hartu behar izatea, ezetz espero dudun arren. Eta bigarrenik, ez dakigulako ez zenbat iraungo duen krisiak, ez zein sakona izango den. Izan ere, aurreikuspenen arabera "ekonomia 2009aren bukaeran bote egiten duen arren, sarritan aurreko hamar banku krisiek bi urte iraun dutelako, batez beste; eta orduan zera pentsatzen dugu: "beno, ba batez bestekoa bi urtekoa bada, zentzuzkoena oraingoan ere bi urte irautea da". Baina egiatan, nire ustez, inork ere ez ditu oinarrizko faktoreak ezagutzen, hau da, zenbat iraungo duen edo zeinen sakona izango den.

Ondorioz, egoera horri aurre egitea ahalbidetzen duten politikak gauzatu behar dira. Positiboa eta arrazoizkoa da badaezpadako aurrekontu bat izatea, eta hori langabeziaren ondoriozko prestazioekin lotutako ohiz kanpoko gizarte laguntzei aurre egiteko gai izateaz gain, krisia egun dagoena baino luzeagoa eta sakonagoa izanez gero, beste gizarte laguntza batzuei ere aurre egiteko gai izatea.

Aurreko krisietan baino langile ez kualifikatuzko multzo ahulago bat dugu, izan ere, immigrazio osagai garrantzitsu bat dauka. Azken finean, krisiak eraikuntzaren alorrean eragina izan du, eta kontuan hartzekoa haien familien egoera (langabeziaren ondoriozko gizarte prestazio eskubide txikiagoak daukate). Aurrekontuak etorkizunean beharbada larrialdi egoeretan ezohiko gizarte laguntza askori aurre egin beharko diela aurrez ikusi behar da.

Ondorioz, nire ustez, Gobernuaren jarrera egokia da, gastu diskrezionala areagotzeko edo zergak ondarearen gaineko zerga kentzearen inguruan dagoeneko aurrez ikusitakoa baino gehiago murrizteko proposamenak baztertzeari dagokionez. Eta nire ustez, Gobernuaren jarrera egokia da ere

“merkatuko ekonomiako oporraldi” antzeko bat onartzeari eta kreditu sisteman arrisku sistemiko bat ezabatzeko beharrezkoa litzatekeena –eta beharrezkoa ez izatea espero dut- baino haratago doan erreskate politika bat irekitzeari uko egiten dionean. Eta nire ustez, bai Ekonomia Ministroak, bai Gobernuo Presidenteak argi utzi dute beren jarrera. Ez gaude –inola ere- 70eko hamarkadaren bukaeran eta 80koaren hasieran industriaren berreraldaketa gauzatu behar izan zeneko egoeran, ezta haren parekoa den egoera batean ere.

Espainiako industriaren egitura oso desberdina da –eta are gehiago Euskadikoa-, askoz anitzagoa, enpresa askoz sendoagoak dauzka (lehen Iñakik Euskadiko enpresa egituraren alderik sendoenak azaldu dizkigu), eta ondorioz, ezin pentsa daiteke larrialdiaren ondorioz, aspaldiko egoerara jo behar denik, gizartearekin lotutako arazoak direla eta, nahiz industriaren berreraldaketa garaian sektoreak osorik erori zirelako. Krisia areagotuko balitz eta industriaren sektorera igaroko balitz ere, ezinezkoa da egoerak duela hogeit hamar urte industriaren berreraldaketa garaian beharrezkoak izan zirenak bezalako politiketara jo behar izatea. Eta gainera, noski, Europar Batasunak ez du baimentzen, lehen Iñakik gogoratu duen bezala. Hau da, laguntza publikoko politikak debekatuta daude.

Bestalde ez dut uste politika mikroekonomikoak, hau da, epe ertain eta luzean enpresa sare bat bermatzera eta produktibitatearen hazkuntza handiago batera bideratuta daudenak gehiegi aldatu behar direnik ere. Hau da, krisiaz haraindi pentsatu behar dugu. Krisiak ez du beti iraungo. Ez dakit bi urte iraungo duen, baina ez da betirako izango, hori ziur.

Uste dut Eneko izan zela Finlandian politika mikroekonomikoak izan zitezkeen batzuk, adibidez, I+Garen alorreko politika Sobietar Batasunaren aldaketekin ere talka-politikako egoera batean ere mantendu zirela esan duena. Ba, nolabait, nire ustez, guk gauza bera egin behar dugu. Hau da, krisiaren egoeraz askoz haratago pentsatu eta horrelako politikak mantendu, baliabide publikoak azpiegiturretan, hezkuntza eta prestakuntzan, eta berrikuntza teknologikoaren alorrean kontzentratzea.

Zentzu horretan, Gobernuak aurreko legealditik gehiago jardun du inbertsioaren eta garapenaren alde, eta nire ustez, hori politika egokia da. Eta politika egokia ere iruditzen zait politika teknologiko guztia Ministerio bakarrean batzea, hau da, Zientzia eta Teknologia Ministerioan.

Cristina Garmendiak atzo bere Ministerioaren orientazioak azaldu zizkigun. Nire ustez, horrek abantaila ugari eskaintzen ditu; besteak beste, Industria Ministerioa eta Hezkuntza Ministerioaren arteko borroka historikoarekin bukatzea. Eta atzo Cristina Garmendiak ere politika teknologikoa Zientzia eta Teknologiari buruzko Lege berri baten bidez arrazionalizatzeaz hitz egin zuen eta oso alderdi garrantzitsu bat azpimarratu zuen, hau da, ikertzaileen jardueri dagokienez, burokrazia arintzea eta desfuntzionalizatzeaz, eta hori seguruenik Lege berriaren funtsezko alderdietariko bat izango litzateke.

Hala ere, nire ustez, kontuz ibili behar dugu “ezagutzaren ekonomiako adreiluaren hazkuntza ereduaren aldaketa” delakoari dagokionez. Guztiak ez baitaude ados. Guztioi gustatuko litzaziguke Espainia etxez betetako toki bat izan beharrean, Silicon Valley izatea. Baina azken finean, higiezin burbuila Espainian ez da I+Gari pizgarri nahikoa eman ez izanagatik. Benetako tasa oso baxuak –edo negatiboak ere- dauzkan moneta politika bat eta kreditu

entitateek kanpoan funtsak eskuratzeko gaitasun zehaztugabea aldi berean eman direlako, eta beste alde batetik, espekulazio burbuila guztietan gertatzen den berrelikadura positiboko prozesu irrazionalen ondorioz –hau da, aktiboen prezioak etorkizunean iraganean bezala hazten jarraituko duela pentsatzea-gertatu da.

Noski, azkenean egoera hori pitzatu egiten da. Berez, AEB edo Erresuma Batua bezalako herrialdeetan ere, hau da, teknologia berrikuntza maila altua izan dutenetan, higiezin esparruko burbuilak izan dituzte. Horrek hausnartzera eramaten gaitu, Gobernu Zentralek aldi berean KPlaren inflazio neurtua eta aktiboen inflazioa –bai balore higiezinetakoa aktiboen inflazioa, bai higiezin inflazioa- zuzentzeko ezintasunaren inguruan hausnartzera, alegia. Izatez, Alan Greenspan, guru handitzat jo izan zen... baina mundu guztia hasi zaio kolpeak emate, eta zera pentsa daiteke “bai, noski, baina egia esan ez zen ez teknologiaren esparruko burbuila, ez higiezin esparruko zuzentzeko gai izan, aitzitik, kontrolik gabe utzi zituen”.

Eta moneta politika europarrak Espainian bereziki “erosotasuna eragin” ote duen ere hausnar daiteke. Gur higiezin sektorean aktiboen inflazio bat izateaz gain, inflazio tasa bat ere geneukan... Objektibotasunez diot erosotasuna eragin duela, izan ere, baliteke beste herrialde batzuetarako moneta politika zuzena izatea, baina geuretzat seguruenik bigunegia izan da.

Nolanahi ere, ez dute gobernuek erabakitzen zein izango den hazkunde eredia, enpresaburuek baizik. Hau da, teknologiaren alorreko politika bikain bat izanda ere, teknologia politikak ezin ditu enpresaburu berritzaileak ordezkatu. Hazkunde eredia zuzendu egingo da, besteak beste, ezinezkoa delako eraikuntzak arestian erregistratu den erritmoan hazten jarraitzea, baina neurri handi batean, enpresaburuek erabakitzen dutenaren sektore espezializazioaren arabera izango da. Ez dut uste Espainiako ekonomiaren alorrean 1996an hasi zen eta gorabeherekin Sozialisten eta PPren gobernuek jarraitu duten modernizazio, malgutzeko, liberalizazio edo dena delako prozesuari buelta eman behar zaionik ere; hala ere, une honetan, joerak beste alde batera doazela uste dut.

Erreforma liberalizatzaileekin besteekin gertatzen den gauza bera gertatzen da; hau da, justifikatu behar dira. Neurri liberalizatzaile guztiak ez dira berdinak, ezta positiboak ere. Horren adibide argia da Kaliforniako sektore elektrikoaren desarauketa, penagarria izan baitzen. Atzo Luis Atienzak tarifen defizitari buruz hitz egin zigun. Kaliforniak tarifen esparruko defizita hornitzaile eta merkaturatzaileen porrot gisa bizi zuten. Arazoa berbera zen. Txikizkako merkaturatzaile mugatuak izatea eta handizkako merkaturatzaile, aldiz, prezio libreak izatea, hain zuzen. Handizkako merkaturatzaileak igotzen direnean txikizkako merkaturatzaileak mantentzen badira, gauza bi gerta daitezke; bata, txikizkako merkaturatzaile sartzeko duten porrota, eta bestea, tarifen alorrean defizita sortzea, eta horixe gertatu da Espainian, eta Luis Atienzak azaldu zuen bezala, etorkizunean epeka ordainduko da.

Sektore bat liberalizatzen denean, adibidez, sektore elektrikoan horixe geratu da, Estatu Batuetako zati batean eta Europan ere horixe gertatu da –eta Europan, gainera, Batasuneko zuzentarau batek xedatutakoaren ondorioz-, hobe da prozesua ez izatea haragia edo arrainaren artekoa. Hau da, haragia ala arraina izatea. Izan ere, horren adibidea da Kaliforniaren kasua eta tarifen alorreko defizita haragia ala arraina den oso ongi bereizten ez den arauketa erreforma adibide bat da.

Sistema ekonomikoaren modernizazio eta liberalizazioak sektore kaltetuak konpentsatzeko sistema bat aurrez ikusi behar du. Horren adibide da, esaterako, lan merkatuaren malgu-segurtasuna. Lan merkatuaren malgu-segurtasunak lan merkatuaren liberalizazioa esan nahi du, baina lan merkatuaren malgutasunaren eragina jasaten dutenentzako sare bat dauka.

Lehen, norbaitek aipatu du abiadura izugarrian aldatzen ari dela. Ezagutza ekonomia batean gero eta gehiago sartzen joan ahala, izugarria da goi mailako prestakuntza eta behe mailakoa daukaten langileen soldaten arteko aldea. Duela gutxi Paul Krugmanek zera adierazi zuen, Estatu Batuetako desberdintasun horren areagotzearen zati bat ez zela langile eta enpresaburuen artean eman, langile batzuen eta besteen soldaten artean baizik. Eta gainera, izatez, goi mailako prestakuntza daukaten gazte askok, soldatapeko langile gisa jardun beharrean, kudeatzaile gisa dihardute, beren giza kapitalaren enpresari kudeatzaile gisa. Horrek segmentuetan jarrera aldaketa bat eragiten du... hasteko, baldintzen arteko aldea izugarri areagotzea, eta bigarrenik, jarrera politiko eta sindikal desberdina. Sindikatuek kontuan hartu beharko lukete hori. Goi mailako prestakuntza daukaten segmenturik altuenetako langileen jokabideak antz handiagoa dauka enpresaburuen jokabidearekin, behe mailako prestakuntza daukaten langileen jokabidearekin baino.

Lan merkatuko malgu-segurtasunaren adibideak –eta honekin bukatuko dut-nolabait, esku-hartzea eta merkatuaren arteko harremanak nolakoa izan beharko lukeenaren inguruko adierazlea izan beharko luke. Alde batetik, -nire ustez-, krisi egoera batean ezinbestean egin beharrekoa alde batera uzten jarraitu behar da, erakunde ekonomikoetan malgutze, modernizazio eta liberalizazio prozesuarekin jarraitu beharko litzateke, baina, aldi berean, ongizate sistemaren oinarritzko zutabeak mantendu beharko lirateke. Eneko Landáburuk esan zuen bezala, Europar Batasunaren ezaugarri dira. Hau da, osasun estaldura unibertsala, hezkuntzarako sarrera –errenta maila zeinahi izanda ere-, langabeziaren ondoriozko estaldura nahikoa, eta oinarritzko beharren estaldura biztanleria osoarentzako. Are garrantzitsuagoa da egungo krisi egoera kontuan izanik. Horrek zer esan nahi du? Ahalik eta aberastasun gehien sortzea ekonomia malgu eta eraginkorarekin, baina aberastasun horren zati bat biztanleriaren gehiengoarentzako ongizate estatu onargarri bat finantzatzera bideratzea, eta ondorioz, beharrezkoa da ezarpenaren eta gizarte kotizazioen bidezko bilketa maila jakin bat mantentzea.

Hau da, herriari ezin zaio esan aldi berean osasunaren alorreko estaldura ona eta hezkuntza estaldura ona mantenduko dugula eta zergak mugarik gabeko epean jaitsiko direla. Hori, argi dago, herritarrei gezurra esatea da. Kalkulua ez da zergetatik abiatu eta gastua ikusiz egiten, alderantziz baizik. Espainiako herritarren gehiengoaren ustez, -hau da, nolabait esatearren, “Estatuko adostasuna”- publikoki finantzatzutako hezkuntza, publikoki finantzatzutako osasun zerbitzu unibertsala eta gauzak gaizki doazenerako langabeziarako estaldura garrantzitsua izan behar ditugula pentsatzen badu, kontuan izan behar da horrek dakarren kostua. Eta ondorioz, epe ertain edo luzera norbaitek ordaindu behar du. Beste kontu bat da ezarpen sistema arrazionalizatu daitekeela. Baina zergak epe mugagabeen murriztea eta aldi berean ongizate Estatuaren oinarritzko zutabeak mantentzea ezinezkoa da.

Mila esker.

# JOAQUÍN ALMUNIA

## *Amaiera*

---

Mila esker, Patxi. Mila esker hona gonbidatu nauten eta gaur goizean hemen egoteko aukera eman didaten Euskadiko Alderdi Sozialistako kide guztiei. Asko pozten nau hainbeste lagun ikusi izanak Euskadiko Alderdi Sozialistak Ekonomia, Industria, Ikerketa, Garapena, Teknologia eta abarri buruz antolatutako Hitzaldi honetan. Une hauek, batetik, zoragarriak dira, izan ere, Euskal Herrian gauza asko ari baitira aldatzen, baita Espainian, Europan eta munduan ere, baina, bestetik, eta Claudio Aranzadi hizlariak aurreko aurkezpenean adierazi duen moduan, aparteko une konplexu eta zailak dira ekonomiarentzat.

Une zail eta konplexu hauetan ekonomialariak ez gara jai bat animatzeko pertsonarik aproposenak. Dena dela, Europar Batasuneko Ekonomia Gaietarako Komisario gisa, egungo benetako egoera irudikatzen saiatuko naiz, zer aukera dauden eta zeintzuk diren eman beharreko erantzunak. Horretarako, kontuan izango dut, erantzunetako batek konfiantza behar duela izan. Inbertitzaileen konfiantza, kontsumitzaileen konfiantza, eta herritarren konfiantza. Konfiantzarik gabe, irtenbidea arbelean baino ezin izango da marraztu, eztabaida teoriko batean irudikatu ahal izango da, baina baliteke oraindik askoz denbora gehiago behar izatea konfiantza hori sortzeko. Eta konfiantzarik gabe, baliteke egungoa bezain egoera zail batek kostuei mesederik ez egitea, eta oraindik kostu altuagoak ikusi behar izatea. Beraz, azterketa ekonomiko zintzo bat egin daitekeela eta egin beharko litzatekeela uste dut; azterketa gogorra izan dadin saiatuko naiz, baina ez ezkorra, ez dadila azterketa etsikorra izan. Ezta pentsatu ere.

Nondik abiatu beharko genuke? Ekonomia-egoera baten azterketan, honako hau galdetu behar dugu zalantzarik gabe: Zergatik heldu gara egoera honetaraino? Eta, egia esan, erantzuna –eta orain berarekin erabat ados daude analista, politikari, finantza arduradun eta ekonomialariak– idatzita zegoen. Hemerrotekaren batzuk berrikusiz gero, horretaz ohartuko gara eta, nola ez, Europako Banku Zentraleko edota Nazioarteko Moneta Funtseko finantza-egonkortasunari buruzko txostenei, edo baita Europako Batzordearen txostenei ere erreparatzen badiegu edota sektore publikokoak ez diren zenbait ekonomia-analisten Estatu Batuetan edo hemen, Europan, idatzitakoak eta argitaratutakoak berriz irakurtzen baditugu. Gertatzen ari denaren diagnostikoa abuztuaren 8-9ko hipoteken krisia baino lehen zegoen idatzita.

Bistan zegoen –bagenekien– ekonomia globalizatua bere elkarrekiko loturaren erritmoa bizkortzen ari zela, eta hori dela eta -eta honek egia izaten jarraitzen du, aurreko hizlariak esan bezala- aukera handiak eskaintzen dizkigula guztioi. Izugarriko aukera izan da. Eta, azken urteotan, munduko gure ehunka milioi herritarrek txirotasunetik irteteko eta erosteko ahalmen mailetara heltzeko aukera izan dute; egokitasun-aukera handia. Esango nuke, munduko historian, sekula ez dela gertatu azken 15 edo 20 urteotako atzerapen ekonomikoarena bezalako susperraldi azkarrik, eta horrek zerikusia du mugen irekitzearekin, kapital-zirkulazio librearekin, merkataritzako fluxu ekonomikoen eta inbertsioaren igoerarekin, eta munduko ekonomian garrantzitsuak izan diren herrialdeen agerraldiarekin; orain Txina, India, Brasil eta azaleratzen ari diren beste herrialdeen antzera.



Baina aukera guztiak dira arriskutsuak, aldaketa-une handiak. Aukera handiko unea da eta horri probetxua ateratzen jakin behar da. Une hauetan, gainera, politikek, politikak, atzean geratzen direnei lagundu behar die, izan ere, ezin baitiote aldaketei beren kabuz, eta eskura dituzten baliabideekin, aurre egin... Claudio Aranzadik, lehen, merkatuaren funtzionamenduak dituen mugak aipatu ditu, merkatuaren akatsak, eta akats nabarienetako batek zerikusia du desberdintasunen handitzearekin eta aukerak areagotzen dituen desberdintasun horien politika zuzentzaileen behararekin.

Baina aldaketek badute bestelako arriskurik ere. Eta kasu honetan antzemandako, zehaztutako eta aztertutako arriskuak ekonomia globalean gertatu diren aldaketa azkarrek eragindako ekonomia-desoreka handiak sortu dituzten arriskuak dira. Azterketa azkar batera jaitsi diren eta sinplifikatzeko arriskua duten desoreka horiek honela defini daitezke: Barne Produktu Gordinaren % 6 baino handiagoko defizita –urtero munduko BPGaren % 1,5-1,6 arteko zerbait– munduko ekonomia handiengan, Estatu Batuetan alegia. AEBk, urtero, barnean ez dituen aurrezkiak ekarri finantzatu beharreko defizita da, eta gainerako munduari begiratu behar dio aurrezki hori ekartzeko, aurrezki kopuru handi hori. Diru-sarrerak baino handiagoak diren gastuak finantzatzeko, eta familia, enpresa eta sektore publikoarekiko ikaragarriko zorrek eragindako aurrezki-defizita finantzatzeko.

Eta non topatu ditu AEBk urtez urte aurrezki edo baliabide horiek? Bada, ikaragarriko abiadura hazi eta hazten doazen eta azaleratzeko bidean dauden herrialdeetan topatu ditu: Txinan, Asian azaleratzen ari diren beste ekonomietan...

Txinako kanpo-erreserbak, gaurko egunean, 1,8 bilioi (espainiarrak) dolarrekoak direlakoan nago; ikaragarriko zenbatekoa hori ere. Azken urteotan, diru-sarriren erdia baino gehiago aurrezki dute txinatarrek. Beren BPGaren % 50 baino handiagoko aurrezki-tasa dute. Ez dute eurek gastatzen, eta bertan, munduaren bestaldetik, Estatu Batuetatik, eskatzen duenak topa dezake aurrezki. Baina Txinako aurrezkiarekin edota beste herrialdeetako aurrezki txinatarrekin ez dute nahikoa, eta petrolio eta lehengaiak ekoizten dituzten herrialdeetako aurrezkiekin ere defizit iparramerikarrari laguntzen diote.

Baina oreka hori ez da oreka egonkorra, eta bagenekien. Duela bi urte eztabaidatu genuen eztabaidak antolatu zituen Moneta Funtzarekin. Eztabaidatu da, eztabaidatu dugu –euro-gunea barne– nola doitu behar dugun desoreka hori modu txukun batean. Izan ere, zerk eragiten du desoreka hori? Finantza-merkatuen bidez globoaren alde batetik bestera igaro diren fluxu-kopuruak areagotzeak eragin du. Finantza-merkatuetan, beraz, egundoko likidezia egon da. Likidezia handi horrek, finantzaketa kostuaren eta interes-tasen beherakada eragin du –lehen Claudio Aranzadik ere halaxe ziola uste dut–, eta finantzaketa kostu baxu horrek burbuilak sortzen ditu, arrisku zentzugabeak sortzen ditu.

Horixe gertatu da azken urte hauetan. Eta besterik ere bada: inbertitzaile batzuk errentagarritasuna bilatu behar dute –edo aurkitu dezaketela uste dute– beren inbertsio zentzugabeekin, eta finantza-merkatuetako eragile garrantzitsuek ekoiztutako produktu sofistikuak aurkitu dituzte errentagarritasun handiko eskaera horri erantzuteko. Eta eskaera, normalean, bere horretan dauden produktu garesti horiek erosteaz arduratzen diren

baliabideetan oinarritzen da. Hitz batez esanda, burbuila bat. Izugarriko burbuila.

Guztiok genekien ez zela iraunkorra izango. Baina, gehienek, elkarrizketen bidez burbuilaren tamaina txikitzea lortuko zela pentsatzen zuten, hala ere, konponbideak bilatzeko elkarrizketa haiek ez zuten arrakastarik izan. Eta, beste batzuek uste zuten, berriz, finantza-merkatu eta segmentu zehatz batzuetan sukarra eragiten zuten gehiegizko fakturak –finantza-merkatuetakoak bereziki- arriskurik handienak hartzeko joera dutenek, *head funds-ek*, eta kapital-arriskuko fondoek ordainduko zituztela. Baina ez da hala izan, eta horrexegatik gure ustekabea.

2007ko abuztuan, hilabete batzuk lehenago iragarri zen bezalaxe, hipotekak igotzeak eragindako krisia hasi zen. Finantza-merkatuetan sekulako beldurra piztu zen, eta banku zentralako larrialdietarako zerbitzuen laguntza jaso behar izan zuten berehala. Europako Banku Zentralaren laguntza izan zen lehendabizikoa. Egun hartan bertan, likidezia-kopuru handia eman behar izan zion finantza-sistemari, izan ere, finantza-sistemako eragileek berehala gelditu baitzituzten funtsen trukeak banku arteko merkatuan eta bi edo hiru egun lehenago aurreikusten ez zen egoera sortu baitzuten. Eta, geroztik, desoreka horien gertaera edo desoreka horiek eragindako bestelako gertaera gogoangarriak bizi eta irakurri behar izan ditugu prentsa-titularretan. Ez ditut errepikatuko, ordea, guztiok baituzue gertatzen ari denaren berri. (Azken aste honetan, zoritxarrez, halako zenbait titularren berri izan dugu. Baina ez da antzeko titularrak jasotzen ditugun lehen astea).

Zer ondorio dakartza? Zenbait herrialdetan –Espainian, besteak beste– berehalako krisia piztu da azkar eraikitzen diren etxebizitzaren sektorean. Bagenekien halaxe gertatuko zela. Estatu Batuetan, Erresuma Batuan, Irlandan, Espainian eta beste zenbait herrialdetan. Finantzaketa merkearen eta arriskuen baloratze desegokiaren ondorioz, etxebizitzaren sektorea ere iraunkorra ez zen prozesu bat ari zen bizitzen; baina finantza-sistema gelditzeak, likidezia gelditzeak eta interes-tasen diferentziak sendotzeak, beherakada bizkortu du eta horrek guztiak ekonomiari eragin dio Estatu Batuetan, Erresuma Batuan, Irlandan eta Espainian esaterako. Ez ditut ondorio horiek guztiak deskribatuko, egunero ikusten baititugu.

Zer gehiago gertatu da? Finantza-sisteman galerak egon dira, eta, bereziki, banku-sisteman. Bulego ekonomikoetan eta Interneten erabilgarri dauden balioespenen arabera, 500.000 milioi dolarreko galerak ditugu gaurko egunez munduko banku sisteman; horien erdia AEBn, eta beste erdia –funtsean, termino azkarretan– Europan. Zergatik Europan, hemen ez baitugu amerikarrek duten “subprime” hipotekarik eta ezta kontu korrontearen bidezko defizitik ere? Bada, subprimeek kutsatutako produktu horietan inbertitu duten finantza-erakundeak ere badirelako hemen eta haiek ere galerak izaten hasi direlako. Zeintzuk dira? Izenak hortik dabilta eta ez ditut aipatuko, baina, egia da, Europako bankuaren orain arteko galeren zati handi bat Suitzako bankuek eragin dutela, eta beste zati handi bat, berriz, euro-gunekoak ez diren bankuek: batez ere britainiarrek. Baina, tira, galera-kopuru handia dagoela ere argi dago. Galerak, edo *right down*-ak, daude balantzeetan, eta birkapitalizatu egin behar dira, batetik, zuhurtziazko gainbegiraketarako arau guztiak betetzeko eta, bestetik, erakundeen kaudimenari dagokien finantza-egonkortasunari eta berme-mekanismoei ez eragiteko.

Orain arteko 500.000 milioiko galera horiek partzialki ordaindu dira 350.000 milioi inguruko birkapitalizazioarekin. Duela aste bete, edo zortzi egun, komunikabideetan oihartzuna izan zuten balioespenen arabera, galeren beste hainbat oraindik ez da deklaratu eta beste hainbat birkapitalizatzeke dago. Halaxe adierazi zuen, behintzat, Nazioarteko Moneta Funtsak. Hau da, igarotakoaren ondorioei aurre egin beharrean gaude eta, era berean, aurrera egiteko erabakiak hartu behar ditugu gertatutakoa errepikatu ez dadin. Erabaki horiek Europan eta mundu-mailan ari dira hartzen. Eta oso modu koherentean.

Pasa den astean, Nizan, duela urte bete Europako finantza-sistemaren egoera gardentzeko hartu ziren erabakiak eztabaidatu zituen ECOFIN kontseilu informalak. Galerak zenbatekoak izan diren eta nork izan dituen gero eta lehenago jakin, orduan eta azkarrago berreskuratuko da finantza-eragileen arteko konfiantza eta azkarrago funtzionatuko dute, normaltasunez, likidezirik gabe dauden –edo gaizki dabilzan– finantza-merkatuko segmentu guztiek. Finantza aktiboen kontabilitate balorazioaren irizpideak hobetu eta egokitu behar dira, finantza-erakundeetako arriskuen kudeaketa sistemak hobetu behar dira, *rating* agentzien funtzionamendua hobetu behar da, –termino jatorretan, behin baino gehiagotan kulunkatu dira, eta, hori dela eta, gardentasunari eta konfiantzari eragin diete eta merkatuan, berriz, gardentasunari–, eta finantza-ikuskatzaileen jarduera hobeto koordinatu eta doitu behar da.

Gaur goizean Claudiok esan duen moduan, espainiarrok izugarritzko zortea dugu, izan ere, finantza eta banku ikuskatzaile dugun Espainiako Bankuak lan bikaina egin baitu eta gure finantza-erakundeak besteak baino egoera hobean egotea ahalbidetu baitu. Eta hori guztia, besteak beste, Espainiako banku sektorearen profesionaltasunari zor diogu, baina baita Espainiako Bankuko gure banku ikuskatzaileen doitasunari eta seriotasunari ere, eta eskertu beharrean gaude. Baina Europan arazo bat dugu. Arazo horren inguruan eztabaidatu dugu eta eztabaidarekin jarraituko da urriaren hasieran, ECOFINen datorren kontseiluan. Finantza ikuskatzaileek –banku sektoreaz gain, aseguru edota balore-merkatuei jartzen zaizkienek– nazio-esparrua dute, agindu nazionala dute, euren nazioko legeen menpe baitaude; baina finantza-erakundeak finantza-merkatuen bilakaeraren atzetik dabilta, eta nazioz gaindikoa dimentsio argi bat duten finantza-erakunde ugari daude. Eta finantza-erakunde horiek ezin daitezke lupa batekin ikuskatu, ezta ikuskatzaile nazional baten lenteekin ere.

Hau da, Banco Bilbao Vizcaya Argentariak –bat esatearren– munduko herrialde askorekin dihardu lanean, eta, jakina, Europako herrialde bat baino gehiagorekin. Beraz, iritziak ematea, merkatuari informatzea, eta beharrezko gomendio zein iradokizun hartzea, hala behar izatekotan behintzat, ez dagokio BBVAko ikuskatzaile espainiarrari bakarrik. Beste ikuskatzaileen ikuspuntua ere kontuan izan behar da, eta guztiena bateratu behar da. Eta, era berean, banku ikuskatzaileek –eta beste finantza ikuskatzaileek– nolabaiteko harremana izan behar dute banku zentralarekin; izan ere, hura da likidezia ematen duena eta, denbora errealean, hark egiten dio aurre merkatuko likidezia gabeziaren arazoari okerragorik gerta ez dadin. Finantza ikuskatzaileen eta agintarien, erregulatzaileen, arteko harremana ere hobetu beharra dago, hemen ez baikara soilik legeak, edo indarreko araubideak, aplikatzeari buruzko akatsak ikusten ari, eta, hain zuzen ere, arautze akatsik ere badagoelako; oso ongi erabaki behar da, beraz, zein arau komeni den

aldatzea, eta nola aldatu behar den, arauak konpon dezaketen arazorik berriz egon ez dadin.

Arazo batzuek herrialde bakoitzeko erakundeen diagnostiko ona, politika ona eta estrategia ona eskatzeaz gain, ikuspegi europarra izatea ere eskatzen dute. Gehiago behar da Europa. Eta ez da erraza. Moneta bakarra izatea erabaki dugu, finantza-zerbitzuen integrazio plana erabaki dugu eta berrogei ekimen baino gehiago erabaki ditugu (zuzendaritzarenak eta bestelakoak) gure finantza-sistemen funtzionamenduan dauden oztopoak gainditzeko. Oraindik, hala ere, bakoitzak bere etxean konpondu nahi izateak eta ondokoekin informazioa banatu nahi ez izateak bere horretan jarraitzen du, eta ez gaude halako mesfidantzekin paktuak egiteko onenean.

Berehalako erabakiak hartu behar dira justifikatu gabeko mesfidantzei aurre egiteko, lan egin beharra baitago. Ezin daiteke esan krisi hau gutxitzen ari denik, eta ez dugula bestelako arazorik izango, edo ez dugula bestelako beharrik izango gainerako sistema (eta, beraz, baita gu guztiok ere) arriskuan jar dezakeen finantza erakunde bat salbatzeko. Adi egon behar da, eta, era berean, erabakitazuz jarduteko gogoia eduki behar da. Eta horixe da egiten ari dena. Agintari amerikarrek atzo edo herenegun iragarri zuten asteburu honetan zehaztasun osoz lantzen ari diren ekimen berria. Ez dakit zenbat denbora iraungo den zehaztasun horiek guztiak eskaini arte, baina bide onetik doa, eta merkatariek positiboki jaso dutenez berria, bai hemen eta baita AEBn ere, konfiantza handitzeko eta adostasun honen amaierara iristeko falta zaigun bidea laburtzeko lagungarri izango zaigula espero dugu.

Baina hori ez da gertatzen ari zaigun guztia. Giro ekonomikoa oraindik gehiago trakestu duen beste elementurik ere egon da; petrolio eta bestelako lehengaiak eragindako inflazioa alegia. Orain jaisten ari da. Lehengaien merkatuak –petrolioarenak barne– gelditzen joan dira uda hasieratik; batetik, ekonomiak berak ere behera egin duelako eta eskaera gutxiago dagoelako eta, bestetik, igoera eragiten ari ziren finantza-eragiketak atzeraka doazelako, eragiketak ixten ari direlako eta prezioetan sortzen den presio gutxiago dagoelako. Baina lehengaien prezio igoerak gure ekonomian eragin duen beherakada gainditu beharra dago. Eta iraganean ezagutu genuen inflazio-espinal bat sartuko den atetilak irekitzeko unerik onenean ez gaude. Horretarako, oroimena izan behar da. Duela minutu batzuk egin dugun atsedendian, norbait esan diodan moduan, petrolioaren lehen krisitik hona bizipenak eta oroimenak dituztenek –sektore publikoan zein sektore pribatuan– beren esperientziak gogora ekartzeko eta orain erabakiak hartzen ari direnei kontatzeko aukera ona da; bai energia-prezio garestitzeak eragindako krisiari edo finantza-krisiei buruzkoak eta baita ekonomia arloan bizitako uneei buruzko oroimen eta bizipenak. Besteak beste, iraganeko alor ezberdinetan egindako hutsak errepika ez daitezten. Eta horietako bat guztioi berdin eragiten diguten petrolio-prezioak igotzeko saiakerak dira. Guztioi berdin eragiten digutela diot, hain zuzen ere, guztiok erosi behar ditugulako petrolio edota bestelako lehengaiak kanpoan. Gure artean, elkarri, kakaztutako pilota pasatzen saiatuko bagina, azkenean, inflazio-espinal bat sortuko genuke eta denok aterako ginatke galtzaile. Horrek, izan ere, hazkundeari eragiten baitio, lehiakortasunerako eta une zailtan aurrera egin behar dutenentzako oztopoak baino ez baitira eta, azken finean, hazkundera jaisteaz gain langabezia gehiago baitakar.

Beraz, hona erantsi beharreko ikasgai garrantzitsu bat da hori, eta zehaztasunez eta presarik gabe erantzun behar zaio herritarren, sektore

ekonomiko eta sozialaren eta komunikabideen galderari: "tira, eta... Zer gehiago egingo dute gobernuek? Zer gehiago egingo dute agintariek? Tira, ba... orain arte finantza-sisteman egiten ari denaz gain, Banku Zentralek egiten dutenaz gain, akatsak ez errepikatzeaz gain... oraindik gehiago dago egiteke. Bat: zerga eta aurrekontu politika egoki bat izatea. Eta zerga eta aurrekontu politika egoki batek ez du esan nahi orain gehiago zorpetu behar dugunik, egonkortzaile automatikoei jarduten uztea esan nahi du, eta horrela, aurrekontutik eskaera erantsiari ekarpen handiago bat eginez, dezelerazio ekonomikoa zati batean konpentsatzeko. Horretarako, ordea, ez da erabakirik hartu behar. Ez dira hartu behar, ez; hartara, automatikoki jardun dezan eta herri kontuen egitura-posizioak ez dezan okerrera egin.

Horrek ez du mugarik hazkuntza garaian aurrekontu-doikuntzarik edota zerga-finkapenik egin ez zuten herrialdeetan –ez da Espainiaren kasua, betebeharrak oso ondo egin baitzituen eta, orain, mozkin-marjina hori baitu– eta, horrez gain, gogoan izan behar da, laster, urte gutxi barru, Europako herrialde guztiek –ez Europakoek bakarrik, baina Europakoak zalantzarik gabe– aurre egin behar dietela, gero eta argiago dago, herriaren zaharkitzearen ondorioei, eta herri kontuak prest izan behar ditugula talka horri eusteko pentsio sistemak arriskuan jarri gabe, ongizate egoera arriskuan jarri gabe, eta gure gizarte politikak arriskuan jarri gabe. Eta horrek ongizate egoera arriskuan ez jartzea eskatzen du.

Gizarte politikek, egun, zahartze ideia kontuan izanda, billete-makinatik tira eta defizitak gehitu beharrean, kontu handiagoz jokatzeko eskatzen dute: utzi diru-sarrerei erortzen –jarduera ekonomikoa erortzean eroriko baitira–, utzi deselerazio ekonomikoei lotutako gastuak handitzen –langabeziaren kasua ohiko bat da–; zorrak gehitu gabe ere, marjina badago, herriko sektore ahulenei laguntza-programak egin (eta aurrekontu-marjina duten herrialdeek laguntza-programa horiek egin behar edo beharko lituzkete), eta baliabide publikoak ongi erabili atzo eta gaur hemen eztabaidatu diren politiken alde jokatzeko –ez ditut errepikatuko– eta etorkizunari begira, ekonomia lehiakor, dinamiko eta eraginkorrago bati laguntzeko: I+G politika, Giza Baliabideen politika, Hezkuntza politika eta produktibitatea areagotzeko politika.

Azken aipamen bat ere nahi dut egin: Europar Batasunaren eginkizuna arazo honen aurrean. Lehen aipatu bezala, moneta bakarrak, barne-merkatuak eta finantza-zerbitzuen integrazioak aurreko finantza-krisietan baino europarrago jokatzera behartzen gaituzten baldintzak sortu dizkigute, eta horretarako estatu-kide batzuek beren tentazioak –zertxobait probintziarrak– gainditu behar dituzte, izan ere, beren finantza-krisia, europar moduan jokatuta konpon daitekeela pentsatu beharrean, bakarrik hobeto konponduko dutela uste baitute.

Finantza-krisia ez da herrialde batena edo bestearena, guztiena baizik. Merkatuak globalak dira, ondorio txarrak sortzeko eta gainerakoei arazoak eragiteko arrisku gehien duten erakundeak nazioz gaindikoa dira. Europarrok zortea dugu, Europa baitugu elkarrekin jarduteko. Ezin dezakegu aukera hori galdu, denok batera jarduteko aukerari probetxua atera behar diogu, eta nik uste, gainera, aukera horretaz baliatu behar dugula ekonomia globalaren gobernantzari argudio batzuk emateko. Baten batzuek hara nola definitu duten egungo krisia: "globalizazioko lehen krisia". Tira...

Mundu industrializatuan, behintzat, globalizazioko lehen krisia da. Lehendik ere egon dira krisiak Asian, Latinoamerikan, Errusian eta beste herrialde batzuetan. Baina, hemen, mundu industrializatuan eta herrialde aurreratuetan, azken 20-25 urteetan jasaten dugun lehen krisi handia da, eta oraintxe ari gara horretaz ohartzen. Duela hirurogeita hamar urte baino gehiago, moneta, finantza eta ekonomiaren ikuspuntutik munduko ekonomiaren arautzeari aurre egiteko alde askotako erakundeak sortu ziren Bretton Woods-en, eta egungo baldintzetara inondik ere ez daudela egokituta ausartzen dira batzuk ozenki esatera –beste batzuk ez–. G7 taldean –eta taldeak berak merezi duen errespetu guztiarekin– ez da Txina esertzen, ezta petrolioa edo lehengaiak ekoizten dituzten herrialdeak ere. Hegazkinak ez du eraginkortasunez funtzionatuko baldin eta hegal bateko motorrekin bakarrik badabil. Besteek ere mahaian egon beharko dute.

Azaleratzen ari diren ekonomiak ez dira egoki irudikatzen Moneta Funtsaren gobernu organoetan, nahiz eta, lehen aipatu dudan moduan, eurena izan munduko BPGaren erdia –12 urte barru, tamainari dagokionez, Txina munduko bigarren ekonomia izango da. Eta gobernantza hobeago bat izaten lagundu beharko ligukeen mekanismoen zerrenda eskasiarekin jarraitu genezake: noiz erregulatu behar den erabakitzen, zer egin behar dugun erabakitzen, diagnostikoak partekatzen, eta merkatuei eta eragile ekonomikoiei, parentesi artean jarriko diogula dioten mezuak bidali beharrean, gertatzen ari denaz jabetu garela adierazten duten mezuak bidaliko dizkiegu, gure erantzukizunak hartu behar ditugula, eta erakunde-esparrua eta erronka berridun merkatuko ekonomia-funtzionamenduaren arauak egokituko ditugula; inizatibak edo arriskuak hartzera eramango dituzten konfiantzazko mezuak bidaliko zaizkie – hartzen dituzten arriskuengatik ordainduz–, baina onartutako arrisku horiek etorkizunean irabaziak sortuko dituzten esperantzan. Horixe baita, azken batean, merkatu-jokoa.

Benetako merkatu-jokoa ez da uso-tiroa geldirik botatzea eta honakoa esatea: “ez, ez, nik merkatu-aukeretatik aterako dut probetxua, eta aukera horiei probetxua ateratzeko zorpetuko naiz interes-tasa eskas batekin”. Horrela edonork joka dezake. Zorpetzeko prest daudenak eta zorrak larrutik ordaindu beharko dituztela dakitenak dira benetan arriskuak hartu behar dituztenak. Baina, beti ere, etorkizuneko errentagarritasuna zorrek eragindako gastuak baino handiagoa izango dela kalkulatu. Horiek dira jokoko arauak, eta horixe bera da politikariek, edo erakundeek, bereziki gogora ekarri behar duguna honelako uneetan.

Mezu hori Europako mezua dela uste dut. Datorren hilabeteetan, Europa mezu horren protagonista izan daitekeela edo, behintzat, halaxe izan beharko lukeela uste dut. Eta eragile ekonomiko eta arduradun politikoek zenbat eta azkarrago parte hartu eta denok uste dugun diagnostiko eta azterketaren araberrako erabakiak hartu, orduan eta azkarrago berretsiko dugu honakoa: – hemen, Euskal Herrian, baliteke hilabete gutxi barru izango diren hauteskundeetan– “tira... orain, gertatzen ari denaz hitz egiteaz gain, gertatzeari noiz utziko dion ere esan dezakegu”.

Eskerrik asko.

---